



MARKINA-XEMEIN
lagunkoia
Bizitzaz betetako bidea



2024ko apirila

markina-xemein
udala



bizipoz

Nagusi izatearen **poztasuna** | La **alegría** de envejecer

Markina-Xemeingo Udaleko Gizarte Ongizate Arloak sustatutako proiektua da **Markina-Xemein Lagunkoia**, eta Bizipozek laguntzen dio kudeatzen. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Euskadi Lagunkoia ekimenaren barruan gauzatzen da.

Laguntza teknikoa:

Gizarte-ekimeneko Bizipoz Envejecimiento Activo S. Coop. Pequeña.

AURKIBIDEA

1. PROGRAMAREN TESTUINGURUA	4
1.1 Sarrera.....	4
1.2 Markina-Xemein Lagunkoia/Amigable.....	4
1.3 Markina-Xemeingo errealitatea	5
2. LAN-METODOLOGIA.....	10
2.1 Herritarrekin topaketak.....	13
2.1.1. Talde eragilea sortu eta martxan jarri.....	13
2.1.2. Talde eragilearekin topaketak.....	13
2.2 Lagunkotasun galdetegia.....	14
3. DIAGNOSTIKOA	16
3.1. Diagnostikoa arloka	17
3.1.1 Aire zabaleko espazioak eta eraikinak.....	18
3.1.2 Garraioa.....	26
3.1.3 Etxebizitza	30
3.1.4 Parte-hartzea eta gizarte-sarea.....	33
3.1.5 Herritarren parte-hartzea eta enplegua	37
3.1.6 Errespetua eta gizarteratzea.....	42
3.1.7 Komunikazioa eta informazioa	43
3.1.8 Gizarte eta osasun zerbitzuak	45
4. LAGUNKOITASUN PLANA	51
Erreferentzia bibliografikoak.....	58

1. PROGRAMAREN TESTUINGURUA

1.1 Sarrera

Markina-Xemeingo Udalak urteak daramatza udalerrian gizarte-politikak bultzatzen, Markina-Xemeingo Udalaren **Gizarte Ongizate Arloak sustatutako** koordinazio-lanaren emaitza gisa, **Euskadi Lagunkoia** ekimenarekin **bat egitea** erabaki zuen udalbatzak 2022ko uztailean.

Bizipoz Envejecimiento Activo S. Coop. Pequeña kooperatiba izan zen Markina-Xemeingo diagnostiko-proiektua egiteko erakunde adjudikazioduna. 2023ko urritik 2024ko apirilera jardun ziren lanean, eta Markina-Xemeingo **Diagnostikoa eta Lagunkoitasun Plana** izan zen emaitza.

1.2 Markina-Xemein Lagunkoia/Amigable

Inguruneak adineko pertsonekin adiskidetzeko mugimendua **Osasunaren Mundu Erakundeak** (OMEk) sustatu zuen 2005ean, eta, orduetik, **Hiri eta Komunitate Lagunkoien Munduko Sarea** eratu da, OMEk koordinatuta. Espainian, **IMSERSO**k lankidetzahitzarmena sinatu zuen erakunde horrekin, Adinekoekin Lagunkoia diren Hirien eta Komunitateen Iberoamerikako Sarea sortu eta Espainiako eta Latinoamerikako ekimen guztiak bateratzeko asmoz.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatuta **Euskadi Lagunkoia Sustraietatik Sarea** sortu da, eta horri atxikita dago **Markina-Xemein Lagunkoia** programa. Sarearen helburua da herritarren eta sektore publiko, pribatu eta sozialaren parte-hartzea sustatzea, **zahartzen ari diren pertsonen bizimodua errazten duten inguruneak** sustatuko dituen lagunkoitasun-mugimendu bat garatzeko.

Zer da adinekoekin lagunkoia den udalerrri bat? Zahartze aktiboa sustatzen duen hiri-ingurune integratzailea da.

Berriazko helburuak:

- Adinekoek Euskadiko herri eta hirietako bizitzan gizarte-ongizatea sortzeko duten gaitasuna aprobetxatzea.
- Herritarrek parte hartzeko prozesuak sortzea eta sustatzea.
- Euskadin ekimen lagunkoien sare bat sortzea.
- Inguruneetan aldaketak egiten laguntzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Biztanleria zahartzen ari da munduko herrialde guztietan, eta bi ikuspegitatik ekin dakieke egoera horrek berekin dituen erronkei: errealitate hori **aberastasuna sortzeko aukera** gisa hartuta edo **gizarte zahartu** baten ongizateak dakarren **gastuagatik kezkatuta**. Bi ikuspegi horietan, **lehentasuna** ematen zaio **prozesua aztertzeari**, ikertzeari eta esku hartzeari aukera sozioekonomikoak sortzeko.

Euskadin are garrantzi handiagoa du horrek, **bizi-itzaropena handia** da eta. Bizimodu aktiboa eta autonomia luzatu ahal izateko, hein handi batean, hiri-diseinuak lagunkoia izan behar du, eta etxeko inguruneek, seguruak eta egokiak.

Udalerrri lagunkoiek berrantolatu egiten dituzte egiturak eta zerbitzuak, pertsona guztiei kalitate, segurtasun eta erosotasun handiena eskaintzeko, haien gaitasuna edozein dela ere; horrela, gizarte-bizitzako esparru guztietan parte hartu dezaten sustatzen da. Gainera, **udalerrri lagunkoia adin guztietako pertsonentzat diseinatuta daude**, eta helburua ez da soilik adineko biztanleentzat hobekuntzak egitea.

Horrela egituratutako udalerrietan, biztanle guztientzat dira **abantailak eta onurak**:

- ✓ Oztoporik gabeko eraikinek eta kaleek dibertsitate funtzionala duten pertsonen mugikortasuna eta independentzia hobetzen dituzte, gazteena zein adinekoena.
- ✓ Auzoak ingurune seguruak badira, haurrak, gazteak eta adinekoak seguru irtengo dira kalera, eta modu aktiboan parte hartuko dute era guztietako gizarte- edo aisialdi-ekimenetan.
- ✓ Adinekoek komunitatearen babesa eta laguntza publikoa eta pribatua jasotzen badituzte eta behar dituzten osasun-zerbitzuak jasotzen badituzte, haien familiek presio txikiagoa jasaten dute.
- ✓ Komunitate osoarentzat da mesedegarria adinekoek herriko bizitzan parte hartzea.
- ✓ Herriko ekonomiaren ikuspegitik ere mesedegarria da adinekoek hainbat esparrutan modu aktiboan parte hartzea.

Markina-Xemein Lagunkoia proiektuaren **gizarte-inpaktua eta onurak biderkatu egin daitezke**, herritarren, administrazioen, sektore pribatuaren eta gizarte-eragileen aldetik zenbaterainoko zabalkundea, onarpena eta inplikazioa dagoen.

1.3 Markina-Xemeingo errealitatea

Markina-Xemein Bizkaia probintziako udalerrria da, Lea-Artibai eskualdekoa. 45m²-ko azalera du, 800-900 metroko altitudetan dauden zenbait mendiz inguratua dago eta 5.070 biztanle ditu (2023ko datuak) (Bizkaia Bizcaytik, 2024).

Markina Xemeingo udal mugapeak bi biztanlegune biltzen ditu: Markinako herria alde batetik, eta Xemeingo elizatea, bestetik. Udalerrriaren egungo izena Marquina hiribildua eta Xemeingo elizatea batzetik dator, 1984an euskarara egokitua. Bizkaiko probintziaren ipar-ekialdean kokatuta, hurrengo udalerrriak ditu mugakide: Amoroto eta Berriatua iparraldean, Mallabia eta Berriz hegoaldean, Etxebarria, Mendaro eta Eibar eta Ziortza-Bolibar ekialdean.

1. Irudia. Markina-Xemein lurraldearen mapa




Iturria: Markina-Xemein Udala (2023)

Markina Xemeingo hiri-bilbea eremu lau batean garatzen da, Artibai eta Urko ibaien artean. Hirigune historikoaz gain, udalerrria honako auzoez osaturik dago: Meabe, Erdotza, Barroeta, Atxondoa, Goierri (Santutxu), Urberuaga, Plazakola, Amalloa, Larruskain, Barinaga eta Iturreta. Bestalde, hiri-aglomerazioko populazio handiena bizi den hiriguneak bi gune primitibo ditu: Xemeingo elizatea eta Markinako hiribildua.

Jende gehien bizi den auzoetako buruak dira Iderraga (biztanleria osoaren % 9,49rekin), Arretxinaga (biztanleria osoaren % 9,02rekin), Erdotza (biztanleria osoaren % 7,79rekin) eta Urbitarte (biztanleria osoaren % 6,62arekin) dira biztanle gehien dituztenak (Markina-Xemein Udaleko datuak, 2023).

2. Irudia. Lurraldearen mapa orokorra



Iturria: Markina-Xemein Udala (2005)

Udalerriak ondare baliabide garrantzitsuak ditu: Arretxinagako San Migel eliza, Solartekua jauregia, Karmengo Elizaren komentua, besteak beste. Aipagarria da, gainera, berdegune eta plaza ugari daudela, bai hirigunean bai ibaiaren inguruan (Markina-Xemein Udala, 2005).

Gaur egun, Markina Xemeinek 5.070 biztanle ditu (Bizkaia Bizcaytik, 2024). Azken urteetan, udalerriko dinamika demografikoak ezaugarri hauek izan ditu: bizilagun kopuru osoan gorabehera txikiak daude, orokorrean biztanleriaren hazkundera ikusten da etapa ebolutibo desberdinetan. Agian aldaketarik esanguratsuena biztanleriaren zahartzeari dagokio, batez ere, azken urteetan, 51-70 tarteko eta 70 urtetik gorako biztanleriak bizi izan duen hazkundera.

Gaur egun, batez besteko adina 45,04koa da, eta zifra hori hazi egin da azken hogeitun urteetan (44.31koa izanda) (Bizkaia Bizcaytik, 2024).

1. Taula. Markina-Xemeingo biztanleriaren bilakaera demografikoa (2003-2023)

	Guztira	0 – 20	21 – 50	51-70	>= 70
2003	4.713	771	2.100	1.102	740
2004	4.750	764	2.113	1.130	743
2005	4.473	734	2.019	1.049	671
2006	4.585	763	2.058	1.066	698
2007	4.674	775	2.120	1.072	707
2008	4.811	776	2.213	1.103	719
2009	4.958	814	2.273	1.150	721
2010	4.953	830	2.213	1.193	717
2011	4.974	864	2.160	1.228	722
2012	4.977	886	2.097	1.261	733
2013	4.989	894	2.062	1.295	738
2014	4.986	910	2.026	1.300	750
2015	4.984	926	1.977	1.325	756
2016	4.979	945	1.929	1.343	762
2017	5.008	975	1.928	1.348	757
2018	4.946	977	1.859	1.350	760
2019	5.017	1.029	1.858	1.380	756
2020	5.075	1.029	1.883	1.389	774
2021	5.090	1.042	1.883	1.381	784
2022	5.081	1.052	1.851	1.368	810
2023	5.070	1.058	1.823	1.373	816

Iturria: Bizkaia Bizcaytik (2024)

Zehazki, azterketa demografikotik ondorioztatzen diren zifrek honakoa uzten dute agerian: 20 urtetik beherako biztanleria gaur egungo biztanleria osoaren % 20,86 da, 21-50 urte bitartekoa biztanleriaren % 35,95 da, 51-70 urte bitartekoa biztanleriaren % 27,08 da eta 71 urtetik gorakoa % 16,09a da. Aldi berean, analisi demografiko horrek erakusten du biztanleriaren zahartzeak mailakako gorakada izan duela, bai 51-70 urte bitarteko biztanleriaren artean eta baita 71 urtetik gorako biztanleriaren artean ere.

Bestalde, Markina-Xemeingo biztanleen jatorri-aniztasunari dagokionez, datuek erakusten dute udalerrian bertan jaiotakoak (% 49,9), Bizkaian jaiotakoak (% 23,9) eta Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak (% 6,7) udalerriko biztanleriaren ia % 80,5 biltzen dutela (Aztiker Soziologia Ikergunea, 2020).

Horren harira, Euskal Herritik kanpo jaiotako Markina-xemeindarrei begiratzen jarrita, kontinente desberdinak kontuan izanik, jatorri nagusia Europa da. Guztira 379 herritar dira eta herritarren % 7,5a osatzen dute (2020ko datuak). Ondoren datoz Afrika (349, % 6,9) eta Amerika (220, % 4,3). Bukatzeko, Asian jaiotako 34 pertsona daude, eta Ozeanian jaiotako 7 (Aztiker Soziologia Ikerkunea, 2020).

Estatu mailako datuen artean aniztasun handia dago, Espainiako probintzia eta hirien jatorriari dagokionez. Espainiako beste eskualde batzuetatik etorritako populazioa herritar guztien % 3,9 da (200 biztanle). Ehuneko handienak Madrilek (% 0,3, 15 pertsona), Coruñak (% 0,3, 15 pertsona) eta Pontevedrak (% 0,2, 11 pertsona) eta Espainiako gainerakoek (% 2,5, 128 pertsona) dituzte (Aztiker Soziologia Ikerkunea, 2020). Markina-Xemeingo jatorri aniztasuna eskualdeko herriekin eta Bizkaiako herriekin alderatzen bada, esan daiteke Markina-Xemeinek Lea Artibaiko herriek erakusten duten ezaugarri antzekoak dituela, eta Afrikan eta Europako beste estatuetan jaiotako komunitateak nabarmentzen direla. (Aztiker Soziologia Ikerkunea, 2020).

2. LAN-METODOLOGIA

OMEk ezarritako 4 faseko lan-metodologiaren arabera garatzen ari da Markina-Xemein Lagunkoia proiektua, **etengabeko hobekuntzako ziklo** bati jarraituz. Irudi honetan ageri dira lau fase horiek:

Markina-Xemein Lagunkoiaren garapenak Osasunaren Mundu Erakundeak 4 fasetan ezarritako lan metodologia jarraitzen du, etengabeko hobekuntza zikloari jarraituz. Jarraian azaltzen den irudiak, jarraitu beharreko fase bakoitza jasotzen du:



1. Diagnostikoa eta lagunkotasun-plana

Programaren lehen fasean, biztanleen iritzia biltzeko **kontsulta egiten zaie bai adinekoei bai herritarrei** oro har, proposatutako 8 arloen inguruan: aire zabaleko eremuak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, partaidetza soziala, errespetua eta gizarteratzea, partaidetza zibikoa eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak. Horrela, udalerraren lagunkotasuna ebaluatzen da, eta **hobetzeko proposamenak jaso** eta **lagunkotasun-plan** pertsonalizatu bat proposatzen da.

Markina-Xemein Lagunkoia proiektuaren lehen fasearen helburua da lagunkotasun-plan bat egitea, eta **ekintza zehatzak proposatzea** adinekoen ongizatearen eta biztanleriaren zahartze aktiboaren mesedetan. Horretarako, **2022ko** uztailean **Markina-Xemeingo Udaleko Gizarte Ekintzako Batzordeak** aho batez onesten du **udalerriak "Adinekoekin Hiri Atseginak"** proiektuarekin hartzen duen **konpromisoa**. Horrekin batera, Markina-Xemein udalerria **"Adinekoekin Hiri Atseginak"** programari **atxikitzeko** erabakia aho batez hartu zuen **Udalaren osoko bilkurak**. Hori dela eta, Markina-Xemeingo udalerriak OMEren adinekoekin **atseginak diren hirien nazioarteko sareari atxikitzeko eskabidea** egin zion, IMSERSOren bidez.

Diagnostiko honetan, hiru tresna hauek erabili dira informazioa biltzeko: (i) bigarren mailako iturrien azterketa, (ii) herritarren topaketak eta (iii) lagunkotasunari buruzko galde-sorta.

Hiru tresna horien bidez lortutako informazioa konbinatuta, udalerraren egungo errealitatera hurbildu gaitzke modu errealistan. Tresna horietako bakoitzak helburu jakin bat du, jarraian azalduko dugun moduan:

- ✓ **Bigarren mailako iturriak aztertuz**, udalerrinari buruz dagoen informazio guztia biltzen da, bai alderdi soziodemografikoei buruzkoa, bai udalerrian diharduten eragileei eta garatzen ari diren programei buruzkoa.
- ✓ **Herritarren topaketak** aukera ona dira herritarrekin batera udalerraren lagunkoitasun-mailari buruz gogoeta egiteko. Topaketa horietan, ideiak jasotzen dira, eta herritar liderrak zein diren ikusten da, gerora proiektuari jarraipena emango **dioten** lantaldeak osatzeko.
- ✓ **Lagunkoitasunari buruzko galde-sorta** erabiliz, herritarrek udalerraren lagunkoitasun-mailari buruz zer pertzepzio duten jakin daiteke, adierazle kuantitatiboan bidez.

2. Plana eta ekintzen ezarpena

Programaren bigarren faseari **Plana eta ekintzen ezarpena** deritzo, eta aurreko faseko ondorioak atera ondoren ekiten zaio horri. Zehazki, **4 urterako Ekintza Plana** egiten da, eta, horretan, udalerria adinekoekin lagunkoiagoa izateko ekintzak eta hobekuntzak proposatzen dira.

3. Aurrerapenen ebaluazioa

Programaren hirugarren fasean, egindako aurrerapenei buruzko **ebaluazio-txostena** eta jarraipen-plana aurkezten dira.

4. Etengabeko hobekuntza

Azkenik, hirugarren fasea amaitu ostean, etengabeko hobekuntzako faseari ekiten zaio. Horretarako, **beste Ekintza Plan bat** egiten da, **gehienez 5 urteko iraupeneko**.

Gainera, lan-metodologiaren oinarria *bottom up* hurbilketa da fase guztietan, behetik gora egindako hurbilketa, alegia; horren arabera, **herritarren parte-hartzea oro har** eta, bereziki, adinekoena da proiektuaren **oinarri nagusia**. Inplikaturako **eragile guztien partaidetza-prozesu** bat sortuz garatzen da:



Adinekoek eta, eskuarki, herritarrek egungo, iraganeko eta etorkizuneko egoerari buruzko azterketan hartzen dute parte; hain zuzen, **beren zahartze-prozesuarekin lagunkoia denari buruz zer pertzepzio dituzten**, Markina-Xemeingo eguneroko bizitzan zer arazo dituzten, eta arazo horiek nola konpondu daitezkeen adierazten dute.

Tokiko eragileen partaidetzaren bidez —administrazioa, boluntarioak, zerbitzu-hornitzaileak eta dendariak— eta adinekoek ematen duten informazioa erabiliz, udalerrriak lagunkoia izateko dauzkan **indarguneen eta oztopoen irudi osoago bat** lortu daiteke.

Ikerketaren arduradunek **tokiko ebaluazio horren berri** ematen diete arduradun politikoei, planifikazioaren arduradunei, adinekoei eta, oro har, herritarrei, udalerrria adinekoekin lagunkoiagoa izateko esku-hartzeak egiteko **abiapuntu** gisa.

Prozesua jarduneko saiakuntzaren postulatuak zuzentzen dute, **zortzi jarduera-arlotan** banatuta; hauek dira arlo horiek: aire zabaleko eremuak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, partaidetza soziala, errespetua eta gizarteratzea, partaidetza zibikoa eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak.

Hiri-bizitzako **zortzi alderdi horiek gainjarri** egiten dira eta elkarri eragiten diote; adibide bat jartzearren, partaidetza soziala gizarte-inklusioari erlazionatuta dago, eta oso lotuta informazioa eskura izateari.

Horrela, **zahartzea erabaki politikoaren ardatz** bihurtzen da, eta gizarte- edo osasun-zerbitzuetatik haratago doazen esparruetan eragiten du. Horren ondorioz, ikuspegi integratzaile eta zeharkakotik heltzen zaio zahartze-prozesuari.

2.1 Herritarrekin topaketak

Atal honetan, herritarren topaketen bidez informazioa nola jaso zen azaltzen da. Herritarrekin topaketak gauzatzeko, talde eragile baten bidez egin zen.

2.1.1. Talde eragilea sortu eta martxan jarri

2022an Markina-Xemein Lagunkoia prozesuaren talde eragilea sortu zen herrian. **Talde eragilearen sorrera eta proiektuaren aurkezpena 2022ko irailean egin zen.** Talde eragilea sortzeko prozesua dinamika ezberdinen bitartez gauzatu zen:

- (i) Deialdi zabal bat luzatu zen herrian, proiektuaren aurkezpena egiteko.
- (ii) Deialdia, herriko eta udal hedabideetan zabaldu zen (prentsa oharra, sare sozialak, kartelak...).
- (iii) 2022ko urrian talde eragilearekin bilerak egiten hasi ziren eta proiektuaren lehenengo urratsak ematen hasi ziren. Hilero bilerak egin zituzten 2023ko ekainera arte.

2023ko urria eta abendua bitartean talde eragilearekin topaketak burutu ziren.

2.1.2. Talde eragilearekin topaketak

Atal honetan herritarren topaketen bidez informazioa biltzeko bi orduko 5 bilera egin ziren, ordutegi ezberdinetan, Markina-Xemeingo Pleno Aretoan eta Alkatetzan. Topaketa hauetan gai desberdinak jorratu ziren.

Hurrengo irudian herritarrekin egindako talde fokalen egutegia eta datak jasotzen dira.

3. irudia. Talde fokalen datak eta egutegia

Urria							Azaroa							Abendua						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
						1			1	2	3	4	5				1	2	3	
1	2	3	4	5	6	7	8							4	5	6	7	8	9	10
	9	10	11	12	13	14	15	4	13	14	15	16	17	11	12	13	14	15	16	17
	16	17	18	19	20	21	22							18	19	20	21	22	23	24
2	23	24	25	26	27	28	29													
3	30	31																		

1	Komunikazioa eta informazioa	4	Gizarte eta osasun zerbitzuak
2	Etxebizitza	5	Parte hartzea eta gizarte sarea Enplegua
3	Aire zabaleko lekuak eta eraikinak Garraioa		Errespetua eta barne hartzea

Iturria: norberak egina.

Diagnosi honetan hainbat eragile eta herritarren parte hartu dute eta horien parte hartzeari esker azterketa burutu da. Markina-Xemein Lagunkoiaren esparruan lan egin duten partaideen zerrenda hurrengoa da:

- | | |
|-----------------------------------|---------------------------|
| 1. Amaia Larrañaga | 9. Kristina Jaio |
| 2. Begoña Larrinaga | 10. Leire Markuerkiaga |
| 3. Begoña Sierra | 11. Lidia Urizarbarrena |
| 4. Elena Gisasola | 12. Lourdes Gallastegui |
| 5. Iñaki Ibarluzea | 13. Miguel Algen Bazkaran |
| 6. Iratxe Lasa | 14. Pili Arantzamendi |
| 7. Jose Antonio Martinez de Lagos | 15. Rikardo Lanz |
| 8. Jose Antonio Oregi | 16. Txaro Olabe |

2.2 Lagunkoitasun galdetegia

Markina-Xemeinen adiskidetasun-maila neurtu eta aztertzeko, aurrez aztertutako informazioarekin lan egiteaz gain, ikerketa parte-hartzaileari ekin zitzaion, eta, lehenik eta behin, azterketa kuantitatiboa egin zen, Lagunkoitasunari buruzko galde-sortaren bidez.

Horretarako, Euskadi Lagunkoiak herritarrei kontsulta egiteko proposatzen duen inkestan oinarrituta, Markina-Xemeinen balizko hobekuntzak eta errealitatera egokitzea aztertu ziren. Ondoren, inkesta euskaraz eta gaztelaniaz egin eta maketatu zen. Inkesta paperean eta online galdetegi baten bidez egin zen, herritar guztiek eskura izan zezaten. Online galdetegia euskara hutsean izan zen. 2023ko urrian hasi ziren eta azaroaren amaierara arte herritarrei paper edo online inkesten bidez parte hartzeko aukera eman zitzaien.

Paperean eskainitako galdetegiak honako espazio hauetan utzi ziren eskuragarri:

- | | |
|-----------------------------|--|
| • Farmazia | • San Roke egoitza eta eguneko zentroa |
| • Udaletxeko sarreran | • Osasun zentroa |
| • Pertsona nagusien elkarte | • Liburutegia |
| • Uhagon kultur gunea | • Gizarte zerbitzuak |
| • Polikiroldegia | |

Esteka hurrengoa da:

- <https://docs.google.com/forms/d/1SHmV7ehYQbEurDpgyMncaWyL2pNS-K2w-Hmyd7qdg1Y/edit?ts=658c6c5a>

Online eskaintako galdetegiak talde eragileak sortutako Whatsapp talde baten bitartez zabaldu ziren. Horrekin batera, udalak bere web-orrian eta sare sozialetan ere zabaldu zuen. Ondorioz, estekak hainbat espaziotan publikatu ziren:

- Udal sare sozialetan
- Udal webgunean
- Udal whatsapp talde difusioan
- Markina-Xemein Lagunkoia talde eragilearen whatsapp taldean



2023ko azaroaren 9an, osteguna, herriko merkatua egiten den eguna aprobetxatuz, talde eragileko partaideek kalean karpa bat jarri zuten.


3. DIAGNOSTIKOA

Markina-Xemein Lagunkoia proiektuaren garapena herritarren parte-hartzeari esker lortu da, bi bide erabiliz: alde batetik, lagunkoitasun galdetegien bidez eta, bestetik, herritarren topaketan bidez.

Lehendabizi, **adiskidetasun-galdeketa** parte hartutako **pertsonen datu soziodemografikoen emaitzak** aurkezten dira. 125 inkesta banatu ziren, aurrez aipaturiko udalerriko espazio publikoetan eskuragarri utzi ziren. Horrez gain, 2023ko azaroaren 9an talde eragileko partaideek karpa bat jarri zuten eta 150 inkesta banatu zituzten.

Azkenik, **125** inkestako lagina dugu. Hurrengo grafikoan ikus dezakegun bezala, parte-hartzeari dagokionez, galdetutako pertsonen artean **alde handiak daude genero aldetik**: inkestatutako pertsonen % 66,4 emakumeak dira, gizonezkoen parte-hartzea %31,2koa da. Gainerako ia %2a ez-binariotzat hartzen da.

1. **grafikoa**. Laginaren banaketa generoaren arabera.



Iturria: norberak egin.

Parte-hartzaileen **adinari** dagokionez, lortutako emaitzek bi alderdi esanguratsu erakusten dituzte. Alde batetik, partaidetza handiena izan duen adin-tartea 45-65 urtekoa izan da (%40,9, hain zuzen ere). Bestalde, inkestatutako pertsonen adinak gora egin ahala, gutxiago parte hartzen zuten (80 urte edo hortik gorako partaidetza %3,63koa izan da).

3.1. Diagnostikoa arloka

Atal honetan, udalerrian egindako bost talde fokaletatik nahiz galdetegietatik ateratako informazio guztia biltzen da.

Hurrengo atalean, udalerrri lagunkoia topaketetan lortutako informazioa biltzen da, ikerkuntzaren eta ekintzaren zortzi alorren arabera aurkeztuta: (i) aire zabaleko espazioak eta eraikinak Markina-Xemeinen, (ii) garraioa, (iii) etxebizitza, (iv) sareak eta gizarte-laguntza, (v) errespetua eta gizarteratzea, (vi) herritarren parte-hartzea eta enplegua, (vii) komunikazioa eta informazioa eta (viii) gizarte- eta osasun-zerbitzuak.

Prozesua ikerketa- eta ekintza-postulatuek zuzentzen dute, **zortzi jarduera-arlotan** banatuta.



Aire zabaleko espazioak
eta eraikinak



Garraioa



Etxebizitza



Parte-hartzea eta
gizarte-sarea



Errespetua eta
inklusioa



Parte-hartzea eta
enplegua



Komunikazioa eta
informazioa



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

Lehenengo hiru arloak (**aire zabaleko eremuak eta eraikinak, garraioa eta etxebizitza**) udalerriko ingurune fisikoaren funtsezko ezaugarriak dira, eta eragin handia dute pertsonen mugikortasunean, segurtasunean, osasunaren sustapenean eta partaidetza sozialean.

Hurrengo hiru eremuak (**partaidetza soziala eta gizarte-ehuna, errespetua eta gizarteratzea eta herritarren parte-hartzea eta enplegua**) gizarte-ingurunearekin eta kulturarekin erlazionatuta daude, eta **pertsonen partaidetzan eta ongizate subjektiboan** dute eragina, nagusiki.

Azkeneko bi arloetan (**komunikazioa eta informazioa, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak**), **komunikatzeko eta informatzeko bide eta moduak** aztertu dira, baita adinekoek hiriko **gizarte- eta osasun-zerbitzuak** zer neurritan erabiltzen eta ezagutzen dituzten ere.

3.1.1 Aire zabaleko espazioak eta eraikinak

3.1.1.1. Testuingurua

Gaur egun, Markina-Xemeinen Espazio Libreen Sistema Orokorren azalera ratioa biztanleko 5 m²-tik gorakoa da, legeak hala agintzen baitu. Espazio Libreen Toki Sistemei dagokienez, hirigunean sakabanatuta dauden espazio asko daude, eta hiri-sareak ingurumen-kalitate handia du. Esan daiteke Markina-Xemeingo hirigunean “espazio libre” nahikoa dagoela (Ayuntamiento de Markina-Xemein, 2019).

Naturaz inguraturiko herria da eta mendiko ibilbide ugari daude (Markina-Xemein turismoa, s.f.):

- Akarregi mendiko ibilbidea: Markina-Xemeindik hasi eta Akarregi mendira doan ibilbide zirkularra. Bidea mendia estaltzen duten pinu sail zabaletatik igarotzea ahalbidetzen duten pistetatik garatzen da eta tontorrean bista ikusgarriak daude. Markina-Xemein (85 m) inguruko gailurra da Akarregi (433 m), Arno mendigunearen parte dena.
- MX-1 ibilbidea. Markina-Xemein: Artibai Mendigoizale Taldeak eta Markina-Xemeingo udalak sortutako ibilbide hau, bidezor zaharrak berreskuratzeko helburuz jaio da. Ume txikiek oinez egiteko aproposa da, ez dauka zailtasunik. Asfaltozko bideak eta landa-bideak osatzen dute ibilbidea.
- Urko ibilbidea: Urko bidea, Markina-Xemein eta Etxebarria udalerririk batzen dituen bidegorria da. Ibilbide honetan oinezkoek dute lehentasuna, baina baimenduta dago patinete, monopatin edota patinekin ibiltzea, beti ere, 5 km/h gehienezko abiaduran. Bizikletak eta edozein motatako motordun ibilgailuak debekatuta daude. Urko ibaiaren ondotik igarotzen den bide hau Markina-Xemeingo eta Etxebarriko herritar askok erabiltzen dute paseatzeko eta korrika egiteko.

Aldi berean, espazio libre eta parke anitz daude, guztira 8 jolas-gune daude (7 zabu-gune herrigunean eta bat Barinagan): Zelaia, Zelai Barri, Beheko Mojen Plaza, Beko Txiki, Beko Benta, Azpiko Errota eta kiroldegia.

Alde batetik, 7 kolupio-gune daude eta landa auzoetan eta Barinagan beste bat dago. Beste alde batetik, kiroldegitik aurrera dagoen parkean kokatuta, parke osasuntsua dago.

Era berean, parke edo gune berdeak daude, hau da, herrigunean zuhaitz eta berdeguneak dituzten 6 espazio daude guztira (Zelaia, Murga, Kiroldesia, Ibarrazpi, Lea Artibai Ikastetxea eta Uhagon kulturunea).

Beste alde batetik, Plaza Barriaren erabilera azpimarratu daiteke. Plaza hau umeak eta pertsona nagusiak elkartzen diren espazioa da, batez ere. Frontoia duenez, partiduak sarri egoten dira eta asko erabiltzen da. Horrez gain, aterpea du eta jende asko biltzen da.

Orokorrean esan daiteke kaleak eta parkeak ongi hornituta daudela, gutxienez, komun publikoei dagokionez: Markina-Xemeinen 4 komun publiko daude, kopuru ona da eta oso ondo daude (Arretxinaga, Zelai Barri, Zelaia, Kiroldesia).

Hala ere, espazio publiko askok aterpeak behar dituzte, gune estali bihurtzeko, esate baterako:

- Beheko monjen plaza.
- Zelaiko jolasgunea.
- Ughagon kulturune ingurua.


Parke osasuntsuei dagokienez, bi proposamen daude. Alde batetik, ariketak egiteko gailuak ilaran kokatuta daude. Horrela kokatu beharrean, gailu bakoitza, bata bestearen aurrean kokatzea proposatzen da, erabiltzaileen arteko elkarrizketa sustatzeko. Makina horiek ilaran egonda, ez diote elkarri ondo entzuten.

Bestalde, Zelaiko umeen parkearen ondoan ere kirola egiteko gailuak jartzea proposatzen da.

3.1.1.2. Inkesten eta topaketen emaitzak

Ildo beretik, egindako inkestetatik ateratako eta herritarrekin burututako topaketetan lortutako informazioa azaltzen da jarraian. Lehenik eta behin, herritarrek gai orokorrei buruz duten pertzepzioa erakusten da: garbitasuna, zarata, bizitzeko atsegina den eta bizitzeko egokia den.

2. grafikoa. Herritarren pertzepzioa Markina-Xemeinen atsegintasanaren inguruan




Iturria: norberak egina.

Horri dagokionez, galdetegien emaitzen arabera, udalerriko garbitasunari eta zaratari buruzko pertzepzioa oso positiboa da: Markina-Xemein leku garbi eta zarata gabekoa dela jaso da, eta horrek bizitzeko leku oso atsegina bihurtzen du, goiko grafikoak erakusten duen moduan. Bizitzeko prezioaren eskuragarritasunari dagokionez, aldiz, ikuspegi negatiboagoa ageri da, ez dela oso eskuragarria jaso baita.

3.1.1.2.1. Herriko parkeak eta berdeguneak

Parkeei eta ingurune berdeei buruzko ikuspegi orokorra positiboa da. Inkestatutakoen ia erdiek (% 45,1ek) baieztatu dute nahiko parke daudela (zehazki % 38,7k uste du asko daudela). Era berean, parkeen zainketari buruzko pertzepzioa oso positiboa da: % 52,4k uste du behar bezala zainduta daudela, eta % 35,48k oso zainduta daudela. Parkeen kokapenari eta ekipamenduari dagokionez, inkestatutako pertsonen % 4,87k soilik uste du gaizki kokatuta daudela, eta % 12,2k gutxi hornituta daudela.

3. grafikoa. Markina-Xemeingo herritarrek parkera joateko duten maiztasuna



Iturria: norberak egina.

Aldiz, inkestan parte hartu duten pertsonak parkeetara eta aire zabaleko guneetara joateko maiztasunari buruzko iritzia negatiboagoa da: %7,5 baino ez dira beti joaten eta %30 nahiko eta maiz joaten dira.

Parte-hartzaileek diote Markina-Xemeingo parkeak eta berdeguneak ondo daudela eta egoera onean daudela. Hala ere, ez dirudi haurrentzako parke nahikorik edo jolasgune estalirik dagoenik, lehenengo gurasoen eskaria izan da. Lehenago, Bekobentan dagoen parke estalia itxita egoten zen. Irekita egoteko eskariak jaso ziren eta orain irekita mantentzen da. Txorroen parkeari dagokionez, asko erabiltzen eta garaiaren arabera, erabilera aldatu egiten da: neguan ez da asko erabiltzen eta udan, ordea, asko erabiltzen da.

Bestalde, parkeen kokapena eta ekipamendua egokiak dira. Parkeen kokalekuak hurrengoak dira: Zelaia, Zelai Barri, Beheko Mojen Plaza, Beko Txiki, Beko Benta, Azpiko Errota eta kiroldegia. Gainera, komunak, paperontziak eta iturriak dituzte, berez ondo hornituta daude. Parkeak ongi hornituta egon arren, badirudi ez direla adin guztietako pertsonak joaten. Dirudenez, haurrak eta zaintzaileak joaten dira parkeetara. Aitzitik, pertsona nagusiak ez dira parkeetara joaten.

Parkeen erabilerari dagokionez, honakoak dira kexa nagusiak: alde batetik, parte-hartzaileak kexatzen dira zakurrak dituzten bizilagunen portaera ez delako gizalegekoa. Txakurrentzako parkeak egon arren, parke normaletan txakurrak askatzen dituzte eta jende askok ez ditu txakurren kakak jasotzen.

Baloiararen erabilerarekin, ikuspegi desberdinak daude. Alde batetik, erabilera txarra dela adierazten da, pertsianen eta lokaletako hormen kontra jokatzen dute eta zenbait bizilagunek adierazi dute, bereziki pertsona nagusiek, kolpe bat jasotzeko beldur izaten direla.

Beste aldetik, eremu askotan baloia erabiltzea debekatuta dago, eta pertsona asko ez daude horren alde. Herri hezitzaileen ikuspegitik beste filosofia bat bermatu beharko litzateke. Debekua izan beharrean, elkarbizitza arauak sustatu behar dira.

3.1.1.2.2. Espaloiak eta kaleak

Udalerrietako kale eta espaloien egoera da hiri lagunkoia izateko faktore garrantzitsuenetako bat, eragin handia baitu udalerrian barrena ibiltzeko gaitasunean. Espaloiak egoera txarrean izateak pertsonen udalerrian zehar modu autonomoan ibiltzea eragotzi diezaike. Inkestako datuen arabera, galdetutako pertsonen % 47,9k uste du

Markina-Xemeingo kaleak nahiko zainduta daudela (% 27,6k uste du oso zainduta daudela), eta % 19,50ek egoera erregularra dela adierazten du. Irisgarritasunari dagokionez, inkestatutakoen % 40,65ek uste du kaleak nahiko irisgarriak direla; % 26,82k, berriz, irisgarritasun eskasa dutela.

Azkenik, pertsona gehienek asebetetzea da atsedeen hartzeko tokiak egotea; izan ere, inkestatuen erdiek (% 50,8k) uste dute nahikoa leku daudela, eta % 11,47k, berriz, uste dute gutxi direla eta atsedendarien bolumena sustatu beharko litzatekeela.

Kaleetako irisgarritasunari dagokionez, ez dirudi kaleak oso irisgarriak direnik bi arrazoiengatik: (i) alde zaharreko aldapetako adokinak ez dira egokiak eta asko irristatzen da, eta (ii) koska handiak dituzte. Hala ere, ez labaintzeko tratamendua jarri zen alde zaharrean, eta badirudi euria egiten duenean ez duela irrist egiten. Alde zaharra ez dela irisgarria azpimarratzen da. Irisgarria izan dadin, proiektua inbertsio handikoa izango litzateke: lur guztia altxatu, barruko hodiak aldatu eta dena konpondu beharko litzateke.

Horrez gain, espaloiak txarrak dira eta pertsonen igotzeko arazoak dituzte. Haien diseinua desegokia dela dirudi, batez ere urdinez margotuta daudenak. Horri dagokionez, bi jakinarazpen jaso dira arrazoi horienatik erorketak direla eta.

Plazen kasuan, badirudi horiek ez direla irisgarriak. Gainera, plazetako lorategi eta zuhaitzak zaintzeko zenbait eskaera daude zuhaitzen inausketa eta mantenuarekin zerikusia dutenak, eta, beraz, haien egoera hobetu daiteke. Zelaian zuhaitzen mantenua eta inausketa beharrezkoa da.

2024ean alde zaharra berritzeko proiektua bukatuko da. Ondoren, epe ertainean gauzatzeko plangintza burutuko da.

3.1.1.2.3. Auzoak eta erdiguneak

Auzoei dagokienez, alde handia dago batzuen eta besteen artean: badirudi auzo batzuk kolektibo gisa funtzionatzen dutela, eta beste batzuk indibidualistagoak direla. Auzolanaren arteko koordinazio gabezia nabaritzen da. Hala ere, garai batean Ekozainek sustatutako ekimen interesgarriak gauzatu ziren, auzuneak eta etxe bakoiko balkoiak apaintzekoa, adibidez. Oso interesgarria izango litzateke ekimen horiek berreskuratzea.

3.1.1.2.4 Eraikin publikoak

Eraikin publikoen irisgarritasunari dagokionez, desadostasunak eta iritzi desberdinak daude. Hala, bake-epaitegia, udala edo Mankomunitatea bezalako eraikinak ez dirudi

irisgarriak direnik. Batzuek ez dute igogailurik, eta beste batzuen sarrera ez da irisgarria eskailerak daudelako.

Bestalde, liburutegia asko erabiltzen den espazioa da, baina txikia dela dirudi.

Kiroldegiaren kasuan, parte-hartzaileek kexa batzuk azpimarratu dituzte:

- ✓ Igerilekuan, aulkiak dauden lekuan, sabaia arrakalatuta dago. Itoginak izan daitezke.
- ✓ Aldagelen diseinua ez da egokia. Armairuak zabaltzean pertsonak jotzeko arriskua dago.
- ✓ Komunak oso txikiak egin dituzte. Ume txikiekin komunean sartzea oso zaila da, ez dira bi pertsona kabitzen.
- ✓ Kolorea beltza da. Oso iluna da. Argiak dezente tardatzen du pizten.
- ✓ Igerilekuko uraren temperatura: batzuetan oso hotza eta beste batzuetan oso beroa. Araudiaren arabera, kontsumoa jaisten da. Jendeak gaizki pasatzen du, bereziki ume eta pertsona nagusiek. 24 gradu hotza da igerilekuko urarentzat.

Osasun-zentroaren kasuan, nahiz eta sarrerak arrapala bat izan, badirudi larrialdi-egoeretan ez dela batere eroso. Gainera, aparkatzea zaila da.


3.1.1.2.5. Segurtasuna

Segurtasun-sentsazioak eragin nabarmena du udalerriko leku batetik bestera joateko jarreran, eta zuzenean eragiten du eguneroko ohituretan. Halakorik ez izateak, zalantzarik gabe, bizilagunen eguneroko ohiturak aldatu ditzake, eta, gainera, haien independentziari, osasun fisikoari, integrazioari eta ongizateari eragin diezaioke.

Horri dagokionez, lortutako emaitzek Markina-Xemeingo segurtasunarekin lotutako zenbait alderdi erakusten dituzte:

Alderdi positibo gisa, honako bi hauek azpimarratu behar dira: (i) udalerriko argiztapena; izan ere, galdetutako pertsonen ia erdiek (% 47,54k) behar bezala argiztatutzat jotzen dute, eta (ii) udalerraren zaintza, inkestatutakoen % 52k nahikoa dela uste baitute.

4. grafikoa. Segurtasuna sentiarazten duten tokiak Markina-Xemeinen




Iturria: norberak egin.

Aurrekoaren ondorioz, ez da harritzekoa inkestatutako pertsonen % 56,55ek pentsatzea lapurreta-arrisku txikia dagoela eta inkestatutako biztanleen % 12,2k bakarrik izatea segurtasun-ezaren sentsazioa.

Markina-Xemeingo argiztapenari dagokionez, badirudi gutxi argiztatutako eta argitasun hobea behar duten eremuak daudela: zebra-bideak, erreka izkinako bidea, laboral inguruan leku iluna eta hezea da. Gainera, Xemein ingurua bakartia da eta nahiz eta argia egon, ez dago mugimendu handirik.

Ildo berean, Markina-Xemeingo emakumeen segurtasunari dagokionez, Markina Xemeinek diagnosi bat egin zuen 2023an "Markina-Xemeingo puntu arriskutsuen azterketa" deiturikoa. Txosten horretan, Markina-Xemeingo punturik gatazkatsu eta arriskutsuenak identifikatzen dira. Horrela, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala, eremurik eztabaidagarriena Gaitaneko pasealekua da, ondoren Xemein etorbidea eta kiroldegiaren inguruak.

4. Irudia. Markina-Xemeingo puntu arriskutsuak



Iturria: Markina-Xemeingo Udala (2023)

Txostenetik ateratako ondorioen arabera, eremurik eztabaidagarriena “Gaitaneko pasealekua” da, ondoren Xemein etorbidea eta kiroldegiaren inguruak (Markina-Xemeingo Udala, 2023).

Puntu hauek arriskutsuak bihurtzen dira hurrengo arazoengatik: argiztapen eskasa, leku bakartia izatea gauzez eta ezkutalekuak eta ikuseremu urria egotea, batez ere. Txostenetik ateratako ondorioek proposamen hauek aurkezten dituzte, besteak beste: argiztapena hobetzea (ia % 40k) eta ikusgarritasuna hobetzea (% 7k) (Markina-Xemeingo Udala, 2023).

Segurtasuna hobetzeko, ezinbestekoa da argiztapena bermatzea. Ikusi eta ikusia izateko eta ingurua behar bezala ulertzeko, oinarrizko neurria argiztapen egokia izatea da, batez ere herriko emakumeek arriskutsu azpimarratu dituzten gunetan. Hori lortzeko, argiztapenaren diagnostiko eta plan bat egitea proposatzen da (Markina-Xemeingo Udala, 2023).

Beste alde batetik, presentzia anitza behar da espazio publikoetan. Gune bakarti eta mono-funtzionaletan edo pertsona talde konkritu batzuek soilik erabiltzen dituzten espazioetan aniztasuna sustatzea eta erabilera ordutegi ezberdinak dituzten erabilerak nahastea (Markina-Xemeingo Udala, 2023).

3.1.2 Garraioa

3.1.2.1. Testuingurua

Garraioa funtsezkoa da zahartze aktiborako. Azalpen honetan udalerrian eta udalerritik kanpo mugitzeko erabiltzen diren ibilgailu publiko eta pribatuei buruzko informazioa biltzen da.

Markina-Xemeinek ez du hiriko garraio publikorik, autobus bidezko hiriarteko garraioa du eta ez du trenbide linearik. Hori dela eta, autobus bidezko loturak garrantzi handia du, eta joan-etorri gehien egiten diren ibilbideetan maiztasunak handitzeko beharra azertu behar da (Markina-Xemeingo Udala, 2019).

Hurrengo irudian, Markina-Xemeingo garraio bideen geldiuneak eta ibilbideak ikusten dira (laranjaz adierazia).

5. Irudia. Markina-Xemeingo garraio bideen geldiuneak eta ibilbideak



Iturria: Markina-Xemein Udala (s.f.)

Markina-Xemeinek hurrengo herrien arteko garraio bide publikoak ditu. Autobusei dagokienez, hiriarteko autobusa du (Bizkaibus) hurrengo lau lineetan banatuta:

- A3512 BILBO-LEKEITIO (autobidea)
- A3915 BILBO-DURANGO-ONDARROA (autobidea)
- A3916 BILBO-ERMUA-ONDARROA (autobidea)
- A3922MUNITIBAR-ARBATZEGI // GERRIKAITZ-ZIORTZA-BOLIBAR-MARKINA-XEMEIN-ETXEBARRIA

A3512 lineak Lekeitio eta Bilbo autobidez lotzen ditu orduero, eta A3915 eta A3916 lineek Ondarroa eta Bilbo lotzen dituzte, bakoitzak orduko zerbitzu bat duela; azken horiek ordu erdian behin tartekatzen dira. Udan ez dute autobusik hondartzetara (García-Hernández y Herrero-Goienetxea, 2023).

Beste alde batetik, Markina-Xemeinek bi taxi mota ditu: taxia eta auzo-taxia deritzon zerbitzua. Lehenengoari dagokionez, lau taxi zerbitzuetan banatzen dira: (i) Bustindui Bidaiak, S.L., (ii) Xabat Urizarbarrena, (iii) Olaizola, Mari Tere eta (iv) Iñaki Arakistain "Akis".

Bigarrenari dagokionez, auzo-taxia baserri-auzoetan erroldatuta dauden herritarrentzat prezio oneko taxi-zerbitzua da. Auzo-taxi zentroa auzoekin lotzen duen zerbitzua da. Auzoguneko bizilagun guztiei irekita dago, baita, erdigunean bizi diren pertsoneri eta ezintasun fisikoa izan dutenei ere, istripu bategatik, esaterako, inolako adin-mugarik gabe. Ez dago bidaia mugarik, nahi beste erabil daiteke. Bidaiaaren prezioa 3 eurokoa da. Zerbitzu honen ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera (08:00etatik 20:00etara) eta larunbatetan (09:00etatik 14:00etara). Aurrez deitu behar da, aurreko eguneko 21:00ak aurretik.

Udalerrirako egindako mugikortasun-azterlanean islatzen denez, Markina-Xemeingo garraio-sare alternatiboa hobetzeko neurri batzuk proposatzen dira. Horien artean oinezkoentzako eremu handi bat jarriko da hirigune historikoaren inguruan, hirigunearen erdian, oinezkoentzako kaleak eta aldi bereko bideak osatuz (Markina-Xemeingo Udala, 2019).

Bestalde, oinezkoentzako ibilbideak ezartzen dira, baterako existentziako bideak deiturikoak erabiliz, batez ere Artibai, Osteko eta Xemein Etorbidea kaleak. Neurri puntualak aurreikusten dira, hala nola espaloiak handitzea oso estuak diren kasuetan, edo oinezkoentzako pasabideak egitea (Markina-Xemeingo Udala, 2019).

Bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionez, Markina-Xemeinek gaur egun bidegorri zati batzuk ditu: saihesbidearen paraleloa den ibilbidea, hirigunearen mendebaldeko muturretik eskoletara doana, Artibai ibaiarekiko paraleloa, kiroldegiko sarreraraino. Bidegorriak, bere kokapenagatik, pasealeku funtzioa du hiri barruko joan-etorria baino gehiago. Gaur egun, hurrengo bidegorriak daude:

- Markina-Xemein/Etxebarria.
- Bariante kiroldegia-aren parekoa.
- Kareaga industrialdekoa.

Markina-Etxebarria bidegorrian debekatuta dago bizikletaz ibiltzea. 2025ean bizikleta ibilbidea egingo da. Bidegorria oinezkoentzat izango da, eta bizikletaz ibiltzeko beste ibilbide bat egingo da.

Horiez gain, hainbat ibilbide daude oinez egitekoak bidegorri estilora erabiltzen direnak: Barroetako ibilbidea, adibidez.

Lehendik dauden tartek handitzea aurreikusten da, hiri sare bat eta haren luzapeneko lotura sortuz, hirigunearen inguruko eremuetara hurbiltzeko (Markina-Xemeingo Udala, 2019). Horretarako, bidegorri bat proposatzen da Iderraga kaletik, Fray Bartolome kaletik eta Osteko kaletik. Iturritxu kalearekiko bidegurutzean adar bat sortzen da, kiroldegiaren parean dagoen bidegorriarekin lotzeko (Markina-Xemeingo Udala, 2019).

3.1.2.2. Inkesten eta topaketen emaitzak


Ildo beretik, egindako inkestetatik eta herritarrekin burututako topaketetan lortutako informazioa azaltzen da jarraian.

3.1.2.2.1. Zirkulazioa eta seinaleak

Trafikoari eta zirkulazioari dagokienez, badirudi desadostasuna dagoela, batez ere trafiko-seinaleak errespetatzeari dagokionez: % 44,35k uste du nahiko errespetatzen direla eta % 28,22k, berriz, gutxi errespetatzen direla.

Bestalde, ibilgailuek zirkulatzen duten abiadurari buruzko irakurketa eta pertzepzio positiboa nabaritzen da, elkarriketatuen % 44,35ek abiadura egokian zirkulatzen dutela azpimarratzen baitu.

5. grafikoa. Autobus erabileraren maiztasuna



Iturria: norberak egina.

Kasu honetan, lortutako informazioa autobusa garraibide gisa erabiltzeari buruzkoa da. Horri dagokionez, inkesten emaitzek hurrengoak erakusten dute. Galdetutako pertsonen artean, autobusa gutxitan erabiltzen da: % 41,9k adierazi du gutxitan erabiltzen dutela. Deigarria da, izan ere, txartelaren prezioari buruzko balorazioak autobusaren prezioa nahiko arrazoizkoa dela erakusten dutelako: % 43k hain zuzen ere. Ibilbideei eta maiztasunari dagokionez, % 38,5ek uste du maiztasun nahikoa duela eta % 38,5ek maiztasun handia) eta espazioak eta geralekuak (% 41,3) nahikoak direla.

3.1.2.2.2. Autoa

Zirkulazioari eta abiadurari dagokionez, talde fokaleko parte-hartzaileek esan dute abiadura handian gidatzen dela udalerrian. Gainera, ez dirudi seinaleak eta oinezkoak errespetatzen direnik, eta, batzuetan, buelta ez emateagatik, autoek buelta erdia ematen dute kalearen erdian.

Horri dagokionez, herrian ez dago semafororik, eta biribilgune batek lagundu lezake autoen abiadura murrizten.

3.1.2.2.3. Aparkalekuak

Nahikoa aparkaleku daudela dirudi eta larrialdietan ateratzeko ongi diseinatuta daudela. Hala ere, Bekobenta aldean aparkalekuak oso estuak dira eta Barroetan, partiduak dauden egunetan jendeak gaizki aparkatzen du.

Bestalde, garajeak egon arren, parte-hartzaileek diote ia ez direla erabiltzen, eta kalean lekua dagoenez, ez direla parkinak erabiltzen.

3.1.2.2.4. Autobusa

Autobusari dagokionez, maiztasuna ona da, nahiz eta Bizkaibus gaizki konektatuta egon: (i) jendeak ez du ordutegia ondo ezagutzen eta (ii) Bilborako autobusak denbora asko behar du egiten duen geldialdi-kopuruagatik.

Bestalde, ez dirudi autobus-geltoki nahikoa dagoenik, batez ere Kareaga Industrialdean beharko litzateke, esate baterako Peñascal zentrora doazenentzat. Zonalde arriskutsua da oinez joateko eta jendea oinez mugitzen da geltokiraino, errepide bazterretik.

Geltoki ondoko zebrabidean semaforo bat behar dela azpimarratzen da.

3.1.2.2.5. Bidegorria

Bidegorriaren egoera ez da egokia. Inkestatutek diote bizikletak ezin direla bidegorrian zehar ibili, eta, lehen, EIKA kooperatibako jendea bizikletaz ibiltzen zela, baina utzi egin zutela, ezin delako bertatik pasatu.

Hala ere, bidegorri berezia egingo da ziklistentzat. Markina-Xemeindik Etxeberrira errepidearen ondoan, paraleloan.

3.1.2.2.6. Oinezkoentzat

Parte-hartzaileek azpimarratu dute ez dagoela semafororik, obra-eremuetan izan ezik.

3.1.3 Etxebizitza

3.1.3.1. Testuingurua

Markina Xemeingo udalerrriak, aurreko hamarkadan (1991-2001), etxebizitza-parkearen hazkunde-erritmoa oso motela izan zuen urteko, 16 etxebizitza inguru eraiki ziren. Hala ere, azken urteotan eraikuntzaren erritmoa asko azkartu da, batez beste 53,2 etxebizitza urteko (Markina-Xemeingo Udala, 2019).

Horrela, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gehienak hirigintza-tramitazioko prozesuan daude. Garatu ez diren poligonoak hauek dira (Markina-Xemeingo Udala, , 2019):

- 1.a-Artibai, R-3.a-San Agustin (R-II, Arrabales), 8.a-Uribitarte, 12.a-Iderraga-Ituarte (R-III, Zabalguneak) eta 27.a-Iderraga (R-XI, Herrixka Berriak) eremuak ez dira lehentasunez garatu.
- 29. eremua. Otoana-Isturbe (R-XII, Dentsitate Txikia): nahiz eta hirigintzako parametroak aldatzeko Arauen Aldaketa Puntual bat (7. aldaketa) idatzi, haren kudeaketa oso zaila izan da, eta, beraz, ez da garatu.

EUSTATEko datuen arabera (2010eko datuak), Markina-Xemeinen 747 eraikin daude, eta horietatik 516 etxebizitzak dira, 89 lokalak soilik eta 142 bi horien konbinazioa (EUSTAT). Gaur egun, 2.515 etxebizitza daude udalerrian (2018 okupatuta eta 497 hutsik) (2024ko datuak).

Etxebizitzari dagokionez, Markina-Xemeingo 76 familia daude Etxebiden izena emanda eta 40 etxe Alokabiden. Horren harira, Udalak Alokabiderek hitzarmena sinatu du. Udalak etxebizitza libre duten pertsonak Alokabiden izena ematera animatu eta prozesu guztian lagunduko die, gainera, programaren informazioa sustatu eta zabalduko du.


Beste alderdi garrantzitsu bat etxebizitza hutsen tasa da, Markina-Xemeinen etxebizitza-parke osoaren % 28,15 baita. Babes ofizialeko etxebizitzetara dagokienez, azken urteetan 42 etxebizitza babestu eraiki dira udalerrian (Markina-Xemeingo Udala, , 2019).

3.1.3.2. Inkesten eta topaketaren emaitzak

Ilido beretik, egindako inkestetatik eta herritarrekin burututako topaketetan lortutako informazioa azaltzen da jarraian.

Adeitasun-galdetegiaren bidez lortutako datuen arabera, Markina-Xemeingo herritarren % 55ek adierazten du etxebizitzaren prezioak ez direla eskuragarriak. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, horixe nabarmentzen da: etxebizitzaren prezioak ez direla eskuragarriak.

6. grafiko. Markina-Xemeingo etxebizitzaren prezioen eskuragarritasuna



Iturria: norberak egina.

Diagnostikokoan ikusten denez, oso etxebizitza gutxi daude prestatuta eta egokituta mendekotasun-egoerari aurre egiteko: galdetutako biztanleen % 25,8k bakarrik uste du haien etxebizitza oso egokituta dagoela. Horrek lotura du herritarrek etxebizitza berritzeko, kontserbatzeko eta egokitzeko laguntzei buruz duten ezagutza urriarekin: % 46,34k ez du batere ezagutzen, eta % 43,9k oso gutxi ezagutzen ditu etxebizitza berritzeko, kontserbatzeko eta egokitzeko laguntzak.

Markina-Xemeingo etxebizitzaren egoeraren pertzepzio orokorra positiboa da. Mota desberdinetakoak daudela dirudi, erreformatuak eta hotzetik eta berotik isolatuak. Etxe berriek araudia betetzen dutela eta zaharrek baino egoera hobean daudela azpimarratzen da.

Etxebizitzaren prezioei buruzko ikuspegia, ordea, negatiboa da. Horri dagokionez, etxebizitzaren prezioak, bai erosteko bai alokatzeko, ez dira ez arrazoizkoak ez eskuragarriak. Gaur egungo soldatekin, etxebizitzaren prezioak (alokairuenak) ez dira

irisgarriak. Jende gazteari ez zaio alokatzeko edo erosteko iristen. Etxeen salmenta edo alokairua ekonomiaren menpe dago: lana egonez gero, erosi eta alokairuan jartzen dira. Hala ere, etxebizitzak alokairuan jartzean jendeak esperientzia txarrak izan ditu. Etxebizitza egoera txarrean utzi eta jabea kobratu gabe egon da zenbaitetan. Prezioen arabera etxebizitza bat alokatzeko zailtasuna azpimarratzen da. Egoera hori bera gertatzen da lokalak alokatzean. Gazteen kasuan, ez dute aukerarik etxebizitzaren bat erosteko halako prezioei aurre egin behar badiete.

Bestalde, badirudi etxebizitza hutsak daudela eta ez dakitela zenbat etxebizitza dauden ezta zer egoeratan dauden ere. Udalak informazio hori jakin nahi badu ere, etxebizitzaren jabeek ez dute ematen. Horregatik, ezjakintasun nahiko handia dago etxebizitzaren egoera egokia den alokatzeko.

Eraikin hutsen artean kartzela azpimarratu behar da: espazio handiko eraikina da eta herrian esanguratsua da. Hori dela eta, eraikina babestu nahi da. Gerrako interpretazio-zentroa jartzea nahi da eta bertako bulegoak ere erabilgarri jarri daitezke.

Etxebizitzaren irisgarritasunari eta egokitzapenari dagokionez, azpimarratzekoa da erdialdeko etxebizitza askok ez dutela igogailurik hainbat arrazoiengatik: (i) ez dute igogailurik jarri nahi, (ii) ez dute berritzeko aukerarik edota (iii) inguruko etxebizitzak egoera hobean daude. Eraikin askok igogailuaren alternatibak izan ditzakete: karga-jasogailu bat edo igogailu bat kanpotik, Markina-Xemeinen kasuan bideragarria ez dena. Haien ekipazioa eta hornidura oso garrantzitsua den arren, denetarik dagoela dirudi. Irisgarritasuna sustatzeko, garrantzitsua da azpimarratzea obren gaineko zergak % 90eko hoberia duela irisgarritasuna hobetzeko obretarako (igogailua, dutxa...).

Etxebide eta Alokabideri dagokionez, parte-hartzaileek hainbat kontu azpimarratu dituzte. Alde batetik, sarean sartzeko bete beharreko baldintzak. Beste alde batetik, badirudi batzuetan Alokabideren sistemak ez duela ongi funtzionatzen. Batzuetan, hutsik zeuden etxebizitzetan sartzeko zain zeuden pertsonak egon dira. Horri dagokionez, eta eskuratutako datuen arabera, 36 pertsona daude sare horretan sartzeko zain.

Gainera, etxean obrak egitean irisgarritasuna hobetzeko lana izanez gero, hau da ateari zabaltzea, bainera kendu eta dutxa jartzea, baimenaren prezioa murriztu egiten da. Ez da pertsona nagusientzat bakarrik, edozein adineko pertsonari zuzenduta dago laguntza hori. Etxebizitzak egokitzeko aukera ona da. Baserrien errealitateari dagokionez, azken urteetan jendea baserriak erosi edo alokatu eta egokitzen animatzen ari dira.

3.1.4 Parte-hartzea eta gizarte-sarea

3.1.4.1. Testuingurua

Gizarte-harremanak garrantzitsuak dira gizabanako guztien bizitzan. Pertsonak, oro har, eta pertsona nagusiak bereziki, beren ongizaterako laguntza-sareak behar dituzte.

Familia, bizikidetza-taldea eta inguruko pertsonak laguntza-sare nagusiak dira, eta horregatik, azterketarako funtsezko elementuak dira. Laguntza-sare nagusia familia izaten da. Familia-loturak, batez ere, elkarrekikotasun-harremanetan oinarritzen dira. Harreman horiek aldatu egiten dira gizabanakoaren etapak igaro ahala: hau da, bai haurrek bai helduek laguntza ematen eta jasotzen dute, baina laguntza hori aldatu egiten da bizitzaren garaiaren arabera.


Bestalde, lokalak, erakundeak eta elkarteak egoteak herritarren parte-hartzea bermatzen du, era askotako jarduerak eginez.

3.1.4.2. Inkesten eta topaketen emaitzak

Atal honetan, egindako inkestetatik eta herritarrekin burututako topaketetan lortutako informazioa azaltzen da jarraian.

Markina-Xemeinen kasuan, galdetutako pertsonen % 34,7 beren senideengandik hurbil bizi dela ikusten da, eta, hala, familia-saretik hurbil mantentzearen garrantzia azpimarratzen da.

7. grafikoa. Familiaren hurbiltasuna



Iturria: norberak egina.

Pertsona nagusientzako bigarren laguntza-sare garrantzitsu bat auzo-sarea da. Ildo horretatik, % 47,5ek euren bizilagunak ezagutzen ditu, eta askotan elkarri laguntzen diete

(% 41,12 eta % 31,45). Era berean, inkestatutakoen erdiak baino gehiagok (% 51,61) merkatariak ezagutzen ditu, eta horietako batzuek laguntza jasotzen dute.

3.1.4.2.1. Familia, auzokoak eta lagunak

Familia eta auzo-sareei dagokienez, haien garrantzia nabarmentzen da. Alde horretatik, parte-hartzaileek koadrila asko daudela eta familiakoen hurbiltasuna azpimarratzen dute. Aurrekoari lanpostuak gertu dauden herria dela gehitu behar zaio eta, ondorioz, jendea ez doa kanpora lanera edo lan bila.

Beste alde batetik, gizarte zerbitzuetatik adierazi dutenez, eskualdean (Ondarru, Lekeitio, Markina Xemein) bakarrik bizi diren pertsonen kopuruan igoera egon da. Etxeetan bakarrik dauden pertsonen kopurua, alegia. Udaltzainek ere kasu hau somatu dute, deiak jaso izan dituzte. Diogenes kasuak ugaritzen ari dira.

3.1.4.2.2. Dendak

Bestalde, badirudi denden egoera ez dela ideala, jende asko Markina-Xemeindik kanpo mugitzen baita erosketak egitera. Horren harira, burdindegi dendaren beharra azpimarratzen da.

Bertako biztanle gutxik irekitzen dituzte negozioak, eta negozioak izan dituztenak jubilatuta egin dira. Horrez gain, ostalaritza ez bezala, dendak ez dira irisgarriak, ez daudelako berriztuta. Hala ere, dendariak bezeroekin hurbileko arreta izaten dute eta herritarrak zaintzen dituzte: zerbitzu eta arreta ona eskaintzen dute eta konfiantzazko jendeak erosketak etxeraino eramaten dizkie.

3.1.4.2.3. Tabernak eta jatetxeak

Jatetxeek araudia bete beharko lukete. Hiru taberna berritan egin dira obrak, baina gainerakoak zaharragoak dira eta ez dira irisgarriak. Izan ere, mugikortasun zailtasunak dituen jendea zenbait tabernatara ezin da joan: Toldope, Eder eta Irurok.

Ostalariekin harremana oso ona da.

3.1.4.2.4. Aisialdia

Aisialdiari dagokionez, badirudi aukera eta eskaintza asko daudela. Parte-hartzaileek oso aktibotzat jotzen dute herria, aisialdi-eskaintza handiarekin. Hala ere, eskaintza eremuka orekatuta dagoen auzitan jartzen dute. Prezioek ere eskuragarriak dirudite, eta are gehiago bazkide diren pertsonentzat. Jarduera asko doakoak dira eta jende asko joaten da.

Horren harira, hurrengo taulan Markina-Xemeinek eskaintzen dituen aukerak aurkezten dira, ondorengo kultur-taldeetan egituratuta:

2. taula. Markina-Xemeingo Kultur taldeak

ABARKA ANTZERKI TALDEA	UEMA (Iratxe Ibarra)
BATETARATZE GURASO ELKARTEA	MAXE FEDERAZIOA (OLGETAN)
BETI JAI JUBILATUEN ELKARTEA	MAXE FEDERAZIOA (SORGINZULO)
EMEKI KORALA	AHAZTUEN OROIMENA
GARAIA ELKARTEA	TARINE MUSIKA ESKOLA
IZARBIDEAN ELKARTEA	HERRI BIBLIOTEKA
HEMEN BE BAI MERKATARI ELKARTEA	BAGAITTUN
MARKINA-XEMEINGO ERRALDOIAK	AKERBELTZ GAZTETXEA
MUNDUZABAL	ANDLIGUEYE EUSKADI
SORMEN TAILERRA	MORELARRE
UHAGON KULTUR ELKARTEA	TXOSNA BATZORDEA
XAT	TXISTULARIAK
XEMEIN ABESBATZA	MARKINA SHOTS ROCK&ROLL
XEMEINGO GAZTE AHOTS ABESBATZA	ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK
ZERUTXU DANTZA TALDEA	AEK MARKINA-XEMEIN

Iturria: Markina-Xemeingo Udala (2023)

Herriko ekintzen agenda bateratua dago. Eragileen arteko koordinazioa eta komunikazioa dago, ekintzak ez bikoizteko.

Aisialdi- eta kultura-ekintzak aztertzean espazioak ere landu dira. Alde batetik, musika-eskola dago eta ondo dagoela adierazi da.

Bestalde, mankomunitateko ikasketa-gela dago. Beheko areto nagusia erabilgarri egoten da. Ekintza desberdinak egiten dira, baita hileta zibilak ere. Dena den, erakusketa egiteko ez dela leku aproposa adierazi da. Izan ere, eraikinean gora igo behar da eta erakusketak antolatzeke orduan, espazioa eskura egon behar dela adierazi da. Dena den, beste ekintza mota batzuk egiteko oso leku ona dela adierazi da.

Esan bezala, erakusketak egiteko erabiltzen den espazioa ez da egokia ikusten eta horretarako, Elizaren lokala ona dela adierazi da.

Udaletxe zaharrean, bake epaitegia eta lokal batzuk daude. Lokal horiek herriko elkarteek erabiltzen dituzte.

Liburutegia dagoen eraikinean hainbat eragile daude. Beheko solairuan liburutegia dago eta eguraldi txarrarekin asko erabiltzen da. Biharren solairuan jubilatuen elkarte dago. Hirugarren solairuan jubilatuen elkartetik antolatzen den gimnasia egiteko espazioa eta

aniztasun funtzionala duten pertsonen elkarteak daude (Izarbidean elkarteak). Azken solairuan, Kultur Aretoa eta EPA daude.

Udalerriko aisialdiko jardueren aniztasunari dagokionez, badirudi gogobetetasun orokorra dagoela. Izan ere, galdetutako pertsonen erdiak (% 50ek) aisialdirako jarduerak mota nahiko eta aniztasun nahikoa dagoela dio. Prezioen eskuragarritasunari dagokionez, iritziak askotarikoak dira. Hala ere, badirudi horien prezioa eskuragarria dela: bakarrik % 2,45ek dio jardueren prezioa ez dela eskuragarria. Azkenik, aire zabaleko jarduerak egiteko lekuen kokapenari dagokionez, ikuspegi positiboa nabaritzen da: % 39,51k uste du ongi kokatuta daudela eta % 37,91k oso ongi kokatuta daudela.

3.1.4.2.5. Ariketa fisikoa eta kirol-jarduerak

Kirol-jarduerak publiko zein pribatuetan eskaintza handia dago. Bi kasuetan oso ondo funtzionatzen dutela dirudi eta prezioak oso merkeak dira. Jubilatuentzako kuota merkea da.

Honen harira, hurrengo taulan Markina-Xemeinek eskaintzen dituen aukera desberdinak aurkezten dira, ondorengo kirol taldeetan egituratuta:

3. taula. Markina-Xemeingo kirol-taldeak

AFT (ARTIBAI FUTBOL TALDEA)	MX3T HIRU TXIRLO BOLA JOKO KIROL KLUBA
ALARABI TRIATLOI TALDEA	TXIMISTA ATLETISMO K.T.
AMT (ARTIBAI MENDIGOIZALE TALDEA)	TXIRRINDULARI ELKARTEA
ATXONDO IGERI TALDEA	ZESTA PUNTA ESKOLA
ESKOLARTEKO GURASOEN FEDERAZIOA	UNI PILOTALEKUKO KANTXEROA
ESKU PILOTA TALDEA	MARKINA-XEMEINGO ARINGA-ARINGA KIROL-KLUBA
KASTINPARRO RACING ELKARTEA	

Iturria: Markina-Xemeingo Udala (2023)

Ikus daitekeenez, kirol-taldeen eskaintza eta batasuna oso zabala da udalerrian.

3.1.4.2.6. Prestakuntza-jarduerak: ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, etab

Prestakuntza eskaintza ez da aisialdirako eskaintza bezain zabala. Formakuntza aldetik gutxi dago eta ikastaroak eta prestakuntzak gehienbat entitate pribatuek ematen dituzte. Alde publikotik ez da horrenbeste eskaintzen: udaletxetik ez dira gauza asko eskaintzen, tailer eta hitzaldiak baino ez.

Hizkuntzak ikasteko, ordea, eskaintza handia dago eta beste herri batzuetatik ere Markina-Xemeinera etortzen dira.

3.1.5 Herritarren parte-hartzea eta enplegua

3.1.5.1. Testuingurua

Prestakuntza-mailaren eta enpleguaren arteko erlazioa zalantzarik gabekoa da. Zehazki, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak (aurrerantzean ELGA) *Education at a Glance* 2023ko bere azken txostenean nabarmentzen duenez, **zenbat eta prestakuntza maila handiagoa izan, orduan eta hobeak izango dira lortu ahal izango diren lan-aukerak.**

Horren harira, hurrengo taulan ikus daitekeenez, Markina-Xemeinek nahiko hezkuntza eta prestakuntza aukera ditu, bai eskola publiko bai kontzertatuak: Berakruz Ikastola, Bekobenta Eskola LHI, Markina BHI, Lea-Artibai Ikastetxea, Peñasal Fundazioa eta EPA, hain zuzen ere.

Horrez gain, Tarine musika-eskola dago. Musika-eskolan gazteek eta jubilatu diren pertsona askok parte hartzen dute.

4.Taula. Markina-Xemeingo hezkuntza eskaintza

PEÑASCAL FUNDAZIOA
BEKOBENTA ESKOLA LHI
MARKINA BHI
BERAKRUZ IKASTOLA
LEA-ARTIBAI IKASTETXEA
EPA
TARINE MUSIKA ESKOLA

Iturria: Markina-Xemeingo Udala (2023)

Berakruz Ikastolak duen hezkuntza eskaintza haurtzaindegitik bigarren hezkuntza artekoa da. Bekobenta Eskola Markina-Xemeingo Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bakarra da eta Markina BHI Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoa da. Bestalde, Lea-Artibai ikastetxeak batxilergoa eta lanbide heziketa eskaintzen ditu eta Peñasal Fundazioak lanbide heziketako maila ezberdinak.

Ondoren agertzen diren datuek Markina-Xemeingo 10 urteko edo gehiagoko biztanleriaren prestakuntza-mailaren bilakaera jasotzen dute, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) planteatutako kategorizazioari jarraituz: lehen mailako ikasketak (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza), lanbide-ikasketak (Lanbide Heziketakoak), bigarren mailakoak (Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa), erdi mailakoak (Ingeniaritza Teknikoak, Irakasle-

ikasketak, Erizaintza, Goi-mailako Lizentziaturak...) eta goi-mailako ikasketak (Lizentziaturak, goi-mailako ingeniariak, masterrak eta doktoregoak).

5. Taula. Markina-Xemeingo 10 urteko edo gehiagoko biztanleriaren prestakuntza-mailaren bilakaera (2013-2021).

	2013	2014	2015	2016	2018	2019	2020	2021
Guztira	4.410	4.403	4.378	4.371	4.355	4.426	4.504	4.516
Analfabetoak	18	15	19	18	15	15	15	16
Ikasketarik gabekoak	82	74	69	66	71	75	68	70
Lehen mailako ikasketak	1.816	1.798	1.756	1.702	1.595	1.559	1.554	1.507
Lanbide ikasketak	891	900	903	910	925	1.005	1.056	1.074
Bigarren mailakoak	764	764	782	796	839	839	837	861
Erdi eta goi mailako ikasketak	331	330	315	327	323	313	290	295
Goi mailako ikasketak	508	522	534	552	587	620	684	693

Iturria: EUSTAT (2023)

Horri dagokionez, 5. taulan ikus daitekeenez, Markina-Xemeingo biztanleriaren prestakuntza-mailak gorako bilakaera erakusten du, batez ere bigarren mailako ikasketetan (861 pertsona), lanbide ikasketetan (1074 pertsona) eta goi mailako ikasketetan (693 pertsona) (Eustat, 2023).

Bestalde, enpleguari dagokionez, EUSTATen (2023) arabera, lan-merkatuari buruzko datuek aldaketa nabarmenak deskribatzen dituzte langabezia eta okupazio-tasen bilakaeran, 2010 eta 2022 urteen artean. Aurrekoaren harira, 2022an Markina-Xemeingo biztanleriaren okupazio-tasa % 51,9koa zen. Hala ere, urte horretan langabezian zeuden biztanleen tasa % 7,3 zen.

6. Taula. 16 urte eta hortik gorako biztanleen langabezia-tasak, sexuaren arabera.

	2010	2015	2016	2018	2019	2020	2021	2022
Guztira (%)	10,8	14,9	12,6	6,9	7,8	8,2	8,8	7,3
Gizonak	13,2	16,8	13,2	6,6	8,3	9,0	8,9	7,0
Emakumeak	7,6	12,7	12,0	7,3	7,4	7,3	8,7	7,7

Iturria: EUSTAT (2023)

Aurreko taulan ikus daitekeenez, udalerriko langabezia-tasaren bilakaera aldakorra izan da. Hazkunde handia izan du 2010-2015 aldian (% 10,8tik % 14,9ra), eta 2016. urtetik aurrera langabezia-tasa gutxitzen hasi da. Nabarmentzekoa da 2018a dela azken hamarkadan langabezia-tasa txikiena izan duen urtea (% 6,9).

7. Taula. 16 urte eta hortik gorako biztanleen okupazio-tasa, sexuaren arabera

	2016	2018	2019	2020	2021	2022
Guztira (%)	51,5	53,3	51,9	52,1	50,7	51,9
Gizonak	54,4	56,3	53,9	53,8	52,4	53,4
Emakumeak	48,4	50,1	49,9	50,3	49,0	50,3


Iturria: EUSTAT (2023)

5. taulan ikus daitekeenez, 2016.urteaz geroztik okupazio-tasa handituz joan den arren (batez ere 2016-2018ko tartean), sexuaren araberako desberdintasunak daude. Horrela, nahiz eta emakumeen okupazio-tasa handitu egin den azken 6 urteetan, gizonak baino okupazio-tasa txikiagoa dute.

Bestalde, ez da ahaztu behar okupazio-tasaren eta erosteko ahalmenaren arteko erlazioa eta eragina. Herritarren erosteko ahalmenari dagokionez, Markina-Xemeingo herritarren erosteko ahalmena eta baldintza sozioekonomikoak ezagutu nahi izan dira. Alde horretatik, nahiz eta Barne Produktu Gordina (aurrerantzean BPG) izan hazkunde ekonomiko eta soziala neurtzeko erabiltzen den adierazlea, kasu honetan errenta pertsonala eta familia erabili dira.

Eustatek 2021ari buruz emandako zifrek eta datuek erakusten dute EAEn bizi direnen batez besteko errenta pertsonala 23.313 eurokoa dela 18 urte eta gehiagoko biztanleentzat. Generoari dagokionez, errenta pertsonala modu desberdinean banatzen da. Zehazki, EAEn gizonak jasotzen duten batez besteko errenta emakumeek jasotzen dutena baino askoz handiagoa da (28.360 euro eta 18.659 euro hurrenez hurren).

8. Grafikoa. Batez besteko pertsona-errenta erabilgarria sexuaren arabera (Markina-Xemein).



Iturria: EUSTAT (2023)


Markina-Xemeinen, batez besteko errenta pertsonala 19.225 eurokoa da 18 urteko eta hortik gorako biztanleentzat (datu horiek 2021 urteari dagozkio). Eboluzioari dagokionez, hazkundera izan du 2011-2021 aldian (ikusi 1. grafikoa). Bestalde, generoaren arabera errenta-desberdintasunek azpimarratu daitezke: azken hamarkadan (2011tik 2021era) nahiz eta emakumeen errentak gora egin duen, gizonen errenta nabarmen txikiagoa da oraindik ere: udalerriko emakumeek 17.704 euroko batez besteko errenta dute, eta gizonen, berriz, 21.318 eurokoa.

3.1.5.2. Inkesten eta topaketen emaitzak

Egindako inkestetatik eta herritarrekin gauzaturiko topaketetan lortutako informazioa azaltzen da jarraian.

Borondatezko lanari eta elkartegintzari dagokionez, inkesten emaitzen arabera, galdetutako pertsonen % 32,3k oso gutxi hartzen du parte boluntario-jardueretan eta nahikoa % 27,4k. Elkarrekin parte-hartzea nahiko baxua da; izan ere, % 21,7k ez du batere parte-hartzen eta % 33k oso gutxi. Era berean, galdetutako pertsonen erdiak baino gehiagok (% 52,41ek) adierazi du Markina-Xemeingo bizitzan modu aktiboagoan parte hartu nahiko lukeela.

9. grafikoa. Borondatezko jardueretan parte hartzea



Iturria: norberak egina.

3.1.5.2.1 Partehartzea

Herritarren **parte-hartzeari eta boluntarioritari** dagokienez, parte-hartzaileen ikuspegia eta pertzepzioa da Markina - Xemein ez dela udalerrri parte-hartzailea.

Udalerrriko partaidetzari dagokionez, badirudi jardueraren eta horrek sortzen duen interesaren araberakoa dela. Batzuetan zaila izaten da asmatzea, eta antolatzaileek ez dute jakiten ekintzara jendea joango den edo ez. Honen harira, udalerrriko zenbait jardueretan ematen den partaidetzari dagokionez, jende nagusiak, batez ere ekintza publikoetan, zineman edota martxa nordikoa ekintzan (pertsonei zuzendutako ekintza) parte hartzen du.

Elkarte eta erakunde ugari daude, eta horien artean, Guraso Elkartea eta Eskola Kirola nabarmentzen dira. Guraso Elkartek eta Eskola Kirolak oso ondo funtzionatzen dute. Guraso Elkartea erreferentziazko eredia da beste leku batzuetan. Eskola Kirola kirol eskaintza bateratu duten hiru elkartek osatzen dute, haur eta nerabeek kirol jarduera eskaintza bera izan dezaten. Markina-Xemeingo guraso guztiek parte hartzen dute, baita beste udalerrri batzuetakoek ere.

Beste talde batzuk, Alpino mendi taldea eta txirrindularien taldea dira. Horrez gain, zinemaren antolaketa zinema zale direnen talde batek darama.

3.1.5.2.2. Jubilazioa

Jubilazioari buruzko iritziak askotarikoak dira. Hala ere, pentsiodunak astelehenero elkarteratzea egiten dute, eta jubilazioekin guztiz pozik ez daudela edota hobekuntzak aldarrikatzen dituztela uler daiteke.

Aurretiko jubilazioari dagokionez, berriz, oso iritzi desberdinak daude. Horri dagokionez, garrantzitsua dirudi hurrengo azpimarratzea:

- ✓ Genero-aldea dagoela. Duela urte batzuk arte emakume askok kobratu gabe lan egiten zuten etxean. Emakumearen rola aldatu den heinean, emakume asko lan munduan beranduago sartu ziren eta, ondorioz, arazo gehiago dituzte jubilatzeke.
- ✓ Dinamika-aldaketa bat egon dela.
- ✓ Oso kontu pertsonala dela eta pertsona bakoitzak duen egoeraren mende dagoela.

3.1.6 Errespetua eta gizarteratzea

3.1.6.1. Testuingurua


Pertsona nagusiekiko pertzepzioak, portaerak eta jarrerak oso alderdi garrantzitsuak dira, bai errespetuari dagokionez, bai hiri baten adiskidetasunaren hobekuntzari dagokionez. Errespetuak garrantzia handia du, gaur egun ere pertsona nagusien zahartzeari buruzko aurreiritzietan oinarritutako estereotipo asko mantentzen baitira.

3.1.6.2. Inkesten eta topaketen emaitzak

Jarraian, egindako inkestetatik eta herritarrekin buruturiko topaketetan lortutako informazioa azaltzen da.

Hurrengo grafikoak inkesten emaitzak biltzen ditu. Horren arabera, pertsona nagusiak errespetatzen direla adierazten du. Izan ere, % 39,8k dio asko errespetatzen direla, eta % 33,3k nahiko errespetatzen direla (% 67,9).

10. grafikoa. Pertsona nagusiekiko errespetua



Iturria: norberak egina.

Bestalde, belaunaldien arteko harreman urria ikusten da adin desberdinetako pertsonen artean. Hala, badirudi galdetutako biztanleen % 45,5ek uste duela adin desberdinetako pertsonen artean harreman gutxi dagoela.

Errespetuari dagokionez, parte-hartzaileek azpimarratu dute adinari lotutako bereizkeria-egoerarik ez dela eman, eta aditzera eman dute pertsona nagusiekiko tratua ona dela. Inguruan ez da kasurik ezagutzen. Errespetu faltak gertatu diren egoeretan ez da adinagatik gertatu, jarreragatik baizik. Adibidez, autobusean ez zaie eserlekua pertsona nagusiei uzten. Eserlekua eskaintzen da, baina pertsona nagusiek ez dute nahi izaten.

3.1.7 Komunikazioa eta informazioa

3.1.7.1. Testuingurua

Informazioa behar bezala transmititu eta komunikazio-fluxu sendoak izatea, ezinbestekoak dira informazioa pertsona guztiei helarazi, zahartze aktiboa sustatu eta ondorioz, hiri atsegina antolatzeko.


Udalak komunikazio-plan bat egin du eta hartzaile profilen arabera estrategia desberdinak diseinatu dira. Orain planaren implementazio lanetan ari da udala.

3.1.7.2. Inkesten eta topaketen emaitzak

Egindako inkestetatik eta herritarrekin gauzatutako topaketetan lortutako informazioa azaltzen da jarraian.

Inkestako datuen arabera, hurrengo grafikoan ikusten den bezala, galdetutako pertsonen ia erdiak (% 47,6k) uste du bere udalerriri buruzko informazio nahikoa jasotzen duela.

11. grafikoa. Jasotako informazioari buruz herritarrek duten iritzia



Iturria: norberak egina.

Bestalde, Interneten doan sartzeko toki publikoak izatearekin lotuta dago informazioa eskuratzea. Horri dagokionez, galdetutako pertsonen % 34,67k adierazi du leku gutxi ezagutzen dituela eta %16,12k ez duela Interneten doan sartzeko toki publikorik ezagutzen.

Talde fokalen emaitzek nahikoa informazio dagoela adierazten dute eta, oro har, biztanleek informazio hori jasotzen dutela. Udalerriko jarduera eta ekitaldiei buruzko informazioa batez ere Facebook eta Youtube sare sozialak, ahoz aho, kartelak, Arrate Irratia eta kaleetako panelen bidez zabaltzen da.

Garrantzitsua dirudi adieraztea Udalaren web-orria ez dela ez irisgarria ezta erraza ere, eta horrek zaildu egiten du informazioa bide horretatik bideratzea.

Erabiltzen diren bitartekoak "difusio -aldea" deritzon udalak egindako whatsapp taldea, Telegrameko kanala, jubilatuen elkarteko "difusio-taldea" whatsapp taldea, auzo batzarrak, auzoetako panelak, udal aldizkaria eta irratia dira. Nahiz eta nahiko baliabide egon, badirudi "difusio-taldea" deritzonak oso arrakasta gutxi izan duela eta ez dela asko erabiltzen. Berdina gertatzen da auzoetako panelekin.

Hori dela eta, udaletxeko komunikazio teknikariak jubilatuen elkartean Whatsapp difusio taldea eta Telegram kanala erakusteko saioak burutuko ditu.

Hala ere, udal aldizkariaren balorazioa oso positiboa da: azalpenak eta informazioa kalitatezkoak dira, eta horrek jendeak horren berri izatea ahalbidetzen du. Hala ere, maiztasuna txikia da, argitalpenak seihilekoak baitira

Irratia ere komunikazio-bide ontzat hartzen da: jendeak irratiarekin herriko informazioaren berri izaten du. Arrate eta Bizkaia Irratia dira entzuten direnak, batik bat. Gainera, haikain harremanetan jarriz gero, bai elkarteetatik, bai prentsaurrekoetako informazioa bidaliz, irratiek elkarrizketak egiten dituzte.

3.1.7.2.1. Udaleko sare sozialak

Udaletxeak hurrengo sare sozialak ditu: Facebook, Instagram, Telegram eta Twitter. Hala ere, badirudi ez dela informazio guztia igotzen, Hitzak publikatzen duena elkarbanatzen da. Ondoko taulan ageri da sare sozial bakoitzaren jarraitzaile-kopurua:

8. taula. Udaletxeko sare sozialak

Facebook	1928 jarraitzaile
Instagram	1302 jarraitzaile
Twitter	893 jarraitzaile

Iturria: norberak egina.

Nahiz eta sare sozialak azkarrak diren eta informazioa azkar zabaltzeko aukera ematen duten, hauetatik kanpo ez dago sistema egonkorrik. Bestalde, etxez etxe informazioa paperean bidaltzeak herritar guztiengana iristea ahalbidetzen duen, ez da jasangarria, paper asko gastatzen da eta.

Uhagon kulturguneak duen agenda kulturalak oso eskaintza handia du. 2000.urteko gabonetan sortu zen eta gaur egun, bere webgunean antolatutako kultur jarduera guztiak jasotzen dituzte, egutegi baten bidez.

Markina-Xemeingo herritarrek asko erabiltzen duten beste hedabide bat Hitza aldizkaria da. Aldizkari honek Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko lurraldeak hartzen ditu. Zehazki, Markina-Xemeini dagokionez, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza dagokio. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko 33 herri biltzen ditu aldizkari honek, eta sare sozialen, paperaren eta Internet bidez haiei buruzko informazioa eta albistek ematea du helburu. Aldizkari hau ekimen handia da, baina, antza, Markina-Xemein Hitza aldizkarian oso gutxi agertzearen sentsazioa dago.

3.1.8 Gizarte eta osasun zerbitzuak

3.1.8.1. Testuingurua

Aztertutako azken arloa udalerriko gizarte eta osasun-zerbitzuak dira. Markina-Xemeingo udalerriko gizarte zerbitzuak honela egituratuta daude: (i) oinarrizko gizarte zerbitzuak, (ii) bestelako gizarte zerbitzuak eta (iii) gizarte ongizateko sistemako talde eta elkarteak. Hurrengo irudian grafikoki ageri da, argitasun handiagoa lortzeko.

6. Irudia. Markina-Xemeingo Gizarte Zerbitzuen egitura



Iturria: Markina Xemeingo Udalaren informazioan oinarrituta (S.F.) Dani Miraren Cavaren txantiloia-aren bidez (s.f.)

3.1.8.1.1. Oinarrizko gizarte zerbitzuak

Aurreko irudiaren arabera, Markina-Xemeingo gizarte-zerbitzuak hiru mailatan egituratzen dira. Horri dagokionez, udaleko gizarte zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Euskal sisteman sartzeko atea dira eta, ondorioz, lehen mailako arretea zerbitzuak dira. Horien helburua herritarren arazo eta beharrei erantzutea da eta hurrengo zerbitzuak eskaintzen dituzte: informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa. Hurrengo irudian ikus daitekeenez, 4 jarduketa eremu dituzte eta eremu bakoitzean, arretea zerbitzuak dituzte:

7. Irudia. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arreta zerbitzuak

Autonomia sustatzea eta menpekotasuna duten pertsonen laguntza arloko zerbitzuak

- Menpekotasunaren balorazio eskaera
- Etxeko laguntza zerbitzua (ELZ)
- Menpekotasuna duten familien zaintzaileei zuzendutako zerbitzua
- Telelaguntza zerbitzua
- Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua
- Adineko pertsonentzako eguneko arreta zerbitzua
- Adineko pertsonentzako ostatu zerbitzua

Personen eta beraien familien babesa arloko zerbitzuak

- Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialen esku hartzeko zerbitzua
- Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxea

Gizarte -inklusioa sustatzea eta bazterkeriari arreta ematea arloko zerbitzuak

- Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua
- Gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL)
- Gizarte urgentzial (GU)
- Gaueko harrera zerbitzua
- Eguneko arreta zerbitzua bazterkeria egoeran dauden pertsonen
- Ostatu zerbitzua bazterkeria arrisku egoera dauden pertsonen

Gizarteko parte-hartzea eta komunitateko sustapena arloko zerbitzuak

- Familientzako aholkularitza juridiko zerbitzua

Iturria: Bizipozek egina Markina-Xemeingo Udalaren (2023) eta Eusko Jaurlaritzaren (s.f.) informazioaren bidez.

3.1.8.1.2. Beste gizarte zerbitzu batzuk

Markina-Xemeinek "beste gizarte zerbitzu batzuk" deiturikoak ditu; alde batetik, "Autonomia sustatzea eta menpekotasuna duten pertsonen laguntza arloko zerbitzuak" arloa eta, bestetik, "Markina-Xemeingo herritarrentzako beste zerbitzu eta prestazio ekonomikoak" (Markina-Xemeingo Udalaren, s.f.).

Lehen eremuak San Roke Egotetxea, Gorabide eta Lantegi Batuak entitateak biltzen ditu. Bestalde, zerbitzu eta prestazio ekonomikoei dagokienez, hauek Bizkaiko Foru Aldundiko herritarrentzako zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Zerbitzuak kudeatzen duen dekretuan (185/2015 Gizarte Zerbitzuetako sistemako prestazio eta zerbitzu-kartera dekretua) oinarritzen dira (Markina-Xemeingo Udalaren, s.f.).

3.1.8.1.3. Gizarte ongizateko sistemako talde eta elkarteak

Azkenik, Markina Xemeinek, gizarte ongizateko sistemaren esparruan, elkarte eta entitate hauek ditu (Markina-Xemeingo Udalaren, s.f.):

- Izarbidean
- Caritas

- Beti jai
- Mundu zabal
- Noroc
- Elikagaien bankua
- Asema taldea
- Minbiziaren aurkako elkarte
- Alkoholiko anonimoen elkarte (AAE) eta AL-ANON
- AVIFES


3.1.8. 2. Inkesten eta topaketen emaitzak

Arlo honetan ere, egindako inkestetatik eta herritarrekin gauzatutako topaketetan lortutako informazioa azaltzen da jarraian.

Gizarte zerbitzuen eta osasun sistemaren sistemari dagokionez, honako kontu hauek daude: gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzu eta baliabideei dagokienez, gehienak ez dira ezagutzen:

Alde batetik, % 2,63k baino ez du ongi ezagutzen etxez etxeko laguntza zerbitzua, eta % 8,77k asko ezagutzen du. Bestalde, hurrengo grafikoak erakusten duenez, telelaguntza zerbitzua ere nahiko ezezaguna da: % 27,3k ez du ezagutzen eta % 22,3k ez du horren berri.

12. grafikoa. Tele-laguntza zerbitzuaren ezagutza maila



Iturria: norberak egina.

Bestalde, eguneko zentroaren zerbitzuari buruzko ezagutza zertxobait handiagoa dela dirudi, inkestatutako pertsonen % 31k behar adina ezagutzen duela adierazi baitu. Pertsona nagusientzako egoitzek ere ildo berari jarraitzen diote: galdetutako pertsonen % 34,42k adierazi du horien funtzionamenduaren inguruan oso gutxi ezagutzen dutela.

Osasun-sistemari dagokionez, bi kontu garrantzitsu azpimarratu behar dira. Lehen, osasun-zerbitzuak handitzeko beharra, izan ere, % 4,25k bakarrik uste dute egungo

osasan-zerbitzuak nahikoak direla. Bigarrena, osasan-zentroaren kokapena. Horri dagokionez, badirudi galdetutako biztanleak gustura daudela Markina-Xemeingo osasan-zentroaren egungo kokalekuarekin.

3.1.8.2.1. Esperientzia gizarte-zerbitzuekin

Gizarte-zerbitzuekin izandako esperientzia konplexua dela esan daiteke. Badirudi zaila dela gizarte-zerbitzuetara iristea, eta prozesu horiek denbora asko eskatzen dute. Herritarren esperientzia batez ere laguntza ekonomikoen eskaeran oinarritzen da.

3.1.8.2.2. Esperientzia osasan-zerbitzuekin

Aldaketa nabari da osasan-sisteman eta eskaintzen den arretan: okerrera egin du pandemiagatik. Honen adierazle nagusiak:

- Alde batetik, erresistentzia handia somatzen da aurrez aurreko hitzorduak ematerko orduan. Medikuekin aurrez aurreko hitzordu bat izateko filtro handiak pasatu behar dira. Harreran dagoen pertsonari informazio eta azalpen asko eman behar dizkiozu, askotan oso pertsonalak, medikuekin txanda izateko.
- Arretak txarrera egin du. Medikuekin txanda hartzeko itxaron-zerrenda handia. Ezin da horrenbeste itxaron. Sistema ez da ondo ulertzen. Batzuetan ez dizute txanda ematen eta urgentea dela esaten baduzu eta intsistentzia badago, bai.
- Baliabide pertsonal faltan daude.
- Itxaron-gelan ez da inor egoten.

Horren ondorioz, jendea ez dela Osakidetzarekin fidatzen nabaritu da eta, geroz eta jende gehiago osasan zerbitzu pribatura doala, nahiz eta komunitate mailan Markina-Xemeineko osasan zentroaren parte-hartzea handia den.

Arlo soziosanitariotik, Osakidetzatik, eskualdeka bilerak egiten dira. Gizarte- eta osasan-zerbitzuak elkartzeko bilerak izaten ziren. Lehen egiten ziren, baina orain ez dira egiten. Osakidetzako pertsona gakoa, lotura egingo duena, zein den jakitea falta zaie.

2024ko martxoaren 7ko plenoan Udalean mozio bat onartu da. Osakidetzako gabezia batzuei irtenbideak proposamenak eskainiz.

3.1.8.2.3. Zerbitzuen ezagutza maila

Gizarte zerbitzuen sistema ezagutzera ematen ahalegindu diren arren, oraindik jendeak ez ditu zerbitzuak eta baliabideak ezagutzen. Hala ere, zerbitzuak eta baliabideak ezagutzeko ekintzak prestatzen dira: osasun-zentroko profesionalekin bilerak egiten dira eta gizarte-zerbitzuetako zerbitzuak aurkezten dira. Ekintza hori udaltzainekin ere egiten da eta eskoletako klaustroetan azalpenak ematen dira.

Baliabideen eta zerbitzuen ezagutza-maila nahiko txikia da, eta arazo gisa ulertzen da. Badirudi erabiltzen dituzten pertsonak bakarrik ezagutzen dituztela. Zerbitzu ezagunenak eguneko zentroa, telelaguntza eta etxez etxeko zerbitzua dira eta balorazio ona jasotzen dute. Hala ere, talde fokalean azpimarratzen da eguneko arreta zerbitzua ez dela ezagutzen eta Markina-Xemeinen ez dagoela erabilgarri, erabiltzaileak falta dira.

Gizarte zerbitzuen eta baliabideen gida eskuragarri dago. Etxez etxe gida fisikoa banatu zen, baina gida ez da baserrietara bidali eta ez da web-orrian zintzilikatu. Herritarrek adierazi dutenez, gida oso luzea eta astuna da (euskaraz eta gaztelaniaz da).

3.1.8.2.4. Irisgarritasun-maila

Osasun-zentroaren kasuan, bertara joatea zaila da, aldapa batean dagoelako. Malda jartzeak hobera egin du. Gizarte zerbitzuen kasuan, nahiz eta atea irisgarria ez izan, ondo kokatuta dago.

3.1.8.2.5. Esperientzia Izapiderekin

Izapideen iritzi orokorra negatiboa da:

- Nahiz eta osasun eta gizarte zerbitzuak aurrez aurre lan egiten duten, Foru Aldundiarekin esperientzia ez da ona. Hitzordua eskatzeko gaizki dago, dei asko egin behar dira eta ez dizute aurrez aurreko hitzordua ematen. Harremana zaila da.
- BAKQ-aren inguruan ezjakintasun handia dago. Pertsona nagusiek ez dakite tramitatzen.

4. LAGUNKOITASUN PLANA

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
<p>Aire zabaleko espazioak eta eraikinak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Parke eta espazio ugari daude. Hauen egoera ona da: ondo kokatuta eta hornituta daude. • Kaleak garbi eta zarata gutxi. • Orokorrean segurtasun sentazioa. • PR (mendietako bide) ugari daude. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parkeen erabileraren maiztasun txikia. • Parke eta lorategi guztien zaintza ez da berdina. Erdigune edo auzunekoak ez dira berdin zaintzen. • Herritarren gizabidea txakurren zaintzari dagokionez. • Kaleak ez dira oso irisgarriak, batez ere alde zaharrear. • Eraikin publiko batzuk ez dira irisgarriak: bake-epaitegia edo Mankomunitatea. • Argi gutxi duten pasaleku edo eremuak ez dira seguruak. • Igerilekuko aldagelen diseinua ez da egokia: diseinuagatik armairuak irekitzen jotzeko arriskua dago, komunak oso txikiak dira (batez ere ume txikiak), sabaia arrakalatuta dago eta itoginak sortzen dira igerilekuko aldagelen aurkiak dauden lekuan, sabaia arrakalatuta dago. • Abuztuan kiroldetia itxita dago. 	<p>Parkeak eta aire zabaleko eremuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Plazak eta lorategien zaintza auzune bakoitzaren beharren arabera egokitzea. Zabala plazan adibidez, lurra ez dago ondo eta euria jotzen duten lekuak ez daude ondo, deseginda daude. Karmengo plazan adokinak erdi apurtuta daude. Zuhaitzen sustraiak hazten dira. <p>Espaloiak eta kaleak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irisgarriak ez diren espazio publikoak irisgarritasun minimo bat betetzea: espaloiak konpontzea, batez ere alde zaharrear. • Irisgarriak ez diren eraikin publikoak irisgarritasun minimo bat betetzea: sarreran oztopo fisikoak desagerrarazi. • Kaleetako mantenua egitea. Adokinak konpontzea. • Liburutegiaren espazioa handitzea. • Hilerriaren ondoan komun publiko bat ezartzea. • Gune estali gehiago sortzea. • Abuztuan kiroldetia zabaltzea. • Igerilekuko uraren tenperatura hobeto erregulatzea. • Igerilekuko aldageletako oztopoak desegitea. <p>Segurtasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argiztapena sustatu behar da hurrengo eremuetan: zebra-bideak, erreka izkinako bidea, Gaitaneko pasalekua, Xemein etorbidea eta kiroldetia inguruak.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Garraioa	<ul style="list-style-type: none"> • Aparkaleku nahiko daude. • 4 autobus linea daude (Bizkaibus) Bilborekin loturak dituena. Arrazoizko prezioa, geraleku nahiko eta maiztasun handia. • 2 taxi mota daude: taxia eta auzotaxia. Baserri auzoetan erroldatuta eta erdialdian bizi diren eta oztopo fisikoa duten eta baliabide hau behar duten pertsonentzako prezio eskuragarria. • 3 bidegorri daude: Markina-Etxebarria, Bariante kiroldegi parekoa eta Kareaga industrialdekoa. • Zelai Barriko aldi baterako Parking-a. • 2026an Markina-Etxebarria saihezbidea amaituta egongo da eta horrek herrigunean trafikoa asko gutxituko du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Autoen errespetu eza: ez dute ez abiadura ez seinaleak errespetatzen. Gaizki aparkatzen dute kalean. • Eskualdeko autobus konexioak txarrak dira. • Jendeak ez du ordutegia ondo ezagutzen. • Ez dago semaforik (obra guneetan izan ezik). 	<p>Trafiko eta seinaleak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bariantean abiadura murrizteko ekintzak gauzatu. Biribilgune bat jartzea aztertu. <p>Autobusa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Peñaskal poligonoan autobus geltokia jartzea. • Autobusaren ordutegia geldigune guztietan agertzea. • Markinako garraio sare alternatiboa hobetzeko neurri batzuk proposatzen dira. <p>Bidegorria</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bidegorri berezia egingo da ziklistentzako. Markinatik Etxeberrira errepidearen ondoan, paraleloan. • Eskualdeko bidegorrien lotura. Bide berdea. <p>Oinezkoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Semaforoak behar dira. Guneren baten behar bada, semaforo bat kokatzea aztertu.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> • 2.515 etxebizitza daude. • Babes ofizialeko 42 etxebizitza daude. • Udaletxeak etxeen irisgarritasun laguntzan ematen ditu. • Irisgarritasuna sustatzeko, obren gaineko zergak %90eko hobaria dute irisgarritasuna hobetzeko obretarako (igogailua, dutxa...). • Etxebizitza hutsen azterketa egingo da. • Alokabiden etxebizitza duten jabeek IBlan %50eko obaria eskura dezakete. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ezjakintasun handia dago etxebizitza hutsen inguruan. • Etxebizitza gutxi daude egokituta. Irisgarritasun eza batez ere erdialdeko etxebizitzetan. • Dirulaguntzei buruzko ezagutza oso txikia. • Etxebizitzen prezioak ez dira eskuragarriak. • Etxebide eta Alokabide, sareetan sartzeko bete beharreko baldintzak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Alokairua ordaintzeko eta etxe zaharrak mantentzeko udal dirulaguntzak sustatzea eta informazioa zabaltzea. • Dirulaguntzen informazioa web orrian zintzilikatzea. • Alokabiden eta alokairuko laguntzen azalpenak eskaintzen duten hitzaldiak antolatzea. • Etxebizitza arloko informazioa herritarrentzat irisgarria izatea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Etxebizitzen egoera. Etxe hutsen informazioa. ○ Etxebizitzak hobetzeko laguntzak: irisgarritasun dirulaguntzak. ○ Obrak egiterako orduan, ordaindu beharreko zergen azalpena eskaini. ○ Informazioa web orrian zintzilikatzea. • Etxebizitza alokatzen duten jabeek ziurtasunak ematea. • Eraikin huts publikoei erabilera ematea. Adibidez, kartzelan gerrako interpretazio zentroa jartzea nahi da eta bertako bulegoak ere erabilgarri jartzea.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Parte hartzea eta gizarte sarea	<ul style="list-style-type: none"> • Senitartekoen arteko harremanak indartsuak dira eta euren senideengandik hurbil bizi dira. • Auzokideen eta bizilagunen laguntza-sarea egokia da. • Bertako dendariak gertuko arreta dute eta herritarrak zaintzen dituzte. • Aisialdia eskaintza handia eta prezioak eskuragarriak dira, batez ere bazkide diren pertsonentzat. • Diogenes protokoloa dago. • Prestakuntza eskaintza dago, publiko eta pribatutik. • Eskualdeko pertsonen bakardadearen ikerketa egiten ari dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bakarrik bizi diren pertsonen kopurua handitu da. • Diogenes kasuak sumatu dira. • Pertsona nagusiak ez dira ekintza askotaz enteratzen. • Tokiko merkataritza desagertzen doa auzoetan: dendak ez dira irisgarriak eta jendea kanpora doa erosketak egitera. • Herrian ez dago burdindegia dendarik. • Tabernak eta jatetxe gehienak ez dira irisgarriak. Jatetxeek araudia bete beharko lukete. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualdeko pertsonen bakardadearen ikerketarekin, bakardadea leuntzeko ekintza zehatzak martxan jartzea.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Herritarren parte hartzea eta enplegua	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza arautuko eskaintza handia dago: 4 ikastetxe, fundazio bat, Musika Eskola eta EPA. • Markina-Xemeingo biztanleriaren prestakuntza-maila handitu da azken urteetan. • 2016. urtetik aurrera langabezia-tasa gutxitzen hasi da. • Arlo desberdineko elkarte eta erakunde asko daude. 	<ul style="list-style-type: none"> • 2016. urteaz geroztik okupazio-tasa handituz joan den arren sexuaren araberako desberdintasunak daude: emakumeek gizonek baino okupazio-tasa txikiagoa dute. • Markina - Xemein udalerriko ekintzen parte hartzeak beherakada izan du. • Oso jende gutxi hartzen du parte boluntario jardueretan. • Elkarteetako parte-hartzea baxua da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Markina-Xemeingo elkarteak ezagutzera ematea eta partaidetza sustatzen duten jarduerak bultzatzea.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Errespetua eta gizarteratzea	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona nagusiekiko errespetuari buruzko pertzepzio handia: ez daude errespetu faltak adinari dagokionez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Belaunaldien arteko harremana txikia da adin desberdinetako pertsonen artean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Belaunaldien arteko jarduerak sustatzea. • Umeentzako parkeetan pertsona nagusientzako jarduerak antolatzea.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Komunikazioa eta informazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko gaiei buruzko informazioa nahikoa da. • Udalerriko jarduera eta ekitaldiei buruzko informazioaren zabalkundea modu askotan egiten da: sare sozialak (Instagram, Facebook, Twitter eta Youtube), udal aldizkaria, kartelak, irratia, kaleetako panelak, Whatsapp eta Telegram kanalak, ahoz aho eta auzo batzarrak. • Etxez etxe paperean bidaltzen den dokumentuen bitartez informazioa herritar guztiek jasotzen dute. • Udal aldizkariaren balorazioa oso positiboa da. • Arrate Irratia oso komunikabide ona da. • Eup Irratia berriz ere martxan jarri da. • Interneten doan konektatzeko toki publiko ugari daude. 	<ul style="list-style-type: none"> • Interneten doan sartzeko toki publiko gutxi ezagutzen dira. • Udalaren web orria ez da ez irisgarria eta ez da erraza. • Sare sozialetatik kanpo ez dago sistema egonkorrik. • Udal aldizkariaren maiztasuna txikia da. • Informazioa postontzi guztietan banatzea, ez da jasangarria, paper asko gastatzen da. • Sare sozialak ez dira pertsona nagusien profilerako egokiak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Udal webgunea irisgarriagoa bihurtzea eta udalerriko informazio guztia bertan agertzea. • Komunikabideetan informazioa hobeto transmititzea eta egokitzea. Jarduera eta ekitaldiei buruzko informazioaren zabalkundea modu jasangarriago batean egin, mundu guztia enteratu ahal izateko. • Sare sozialetara igotzen den informazioa, Whatsapp eta Telegram kanaletatik bidaltzea. Kultura egitarauaz gain, trafikoko informazioa ere bidaltzea. • Jadanik erabiltzen diren komunikabideak berpiztea: Irratian Markinan egingo diren jardueren berri ematea, udal aldizkariaren maiztasuna handitzea eta auzoetako paneletan informazioa era erakargarriago batean ematea. • Etxebizitzetako portaletan bertako bizilagunei eragiten dieten informazioa kartel bidez jarri. • Udalerrian martxan dauden zerbitzu eta proiektuen infografia bisual eta bideo bitartez sare sozial eta udal aldizkarian zabaldu. • Hitzako kazetariari informazioa bidali eta publikatzeko eskatu. • Sare sozialetan igotzen den informazioa Whatsapp eta Telegram kanaletan konpartitzea. • Aurrez aurre pertsona nagusiei telefonoa eta Whatsapp aplikazioa erabiltzen ikasteko tailer praktikoak burutzea.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Gizarte eta osasun zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte zerbitzuen eta baliabideen gida eginda dago. Gizarte zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen kokapena ezaguna da. Gizarte ongizateko sistemaren esparruak 10 elkarte eta entitate desberdin ditu. 80 urtetik gorako pertsonen su detektagailuengatik egiten diren bisitekin beharrak identifikatzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-zerbitzuetatik eskaintzen diren baliabide batzuk ez dira ezagunak. Baliabide eta zerbitzuen gida oso luzea eta astuna da. Gizarte zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen eraikinak eta lekuak ez dira irisgarriak. Gizarte-zerbitzuekin izandako esperientzia konplexua dela esan daiteke. Osasun-zerbitzuetan ematen duten tratua pandemia ostean okerrera aldatu egin den pertzepzioa dago: erresistentzia handia aurrez aurreko hitzorduak emateko, baliabide pertsonal falta, itxaron zerrenda luzea. Osasun zerbitzuan baliabide pertsonal faltan daude. Online egiteko kudeaketetan ezjakintasun handia dago eta orokorrean ez da BAQK tramitatzen. Gero eta jende gehiagok osasun pribatura jotzen du. 	<p>Zerbitzu eta baliabideen ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu eta baliabideen gida PDF egin eta webgunean zintzilikatzea. Baliabideen gida argitaratzea, praktikoagoa eta trinkoagoa izan dadin. Udaletxeko sarrerako jendeak gizarte zerbitzuetako eskema azaltzea. Horrela, herritarrei informazioa emango diote. Baliabide eta zerbitzuen gida azaltzeko eragile desberdinekin hitzaldiak egitea. <p>Osasun zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Osasun-zerbitzuak beharrez arabera handitzea. Arlo soziosanitarioan (Osakidetzatik) egiten ziren eskualdeko bilerak berriz ere egitea. <p>Gizarte zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> Bakarrik bizi den pertsonen zerrenda sortzea da eta baliabideei buruzko informazioa eskaini, batez ere herri zaintza telelaguntza eta etxez etxe laguntza zerbitzuei buruzko informazioa. Gizarte zerbitzuetatik txanda telefonikoak egitea. Askotan, jendeak ez du aurrez aurreko txandarik behar. 80 urtetik gorako pertsonen etxez-etxe bisitak egiten jarraitzea, etxea eta pertsona nola dagoen ikusi eta zerbitzuak azaltzeko. Baliabideak behar dira, pertsona aldetik bisita horiek egiteko. <p>Esperientzia Izapiderekin</p> <ul style="list-style-type: none"> BAQK-aren erabileraren aurrez aurreko hitzaldi bat prestatzea.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Ayuntamiento de Markina (2019). *PGOU - Plan General de Ordenación Urbana*. Online eskuragarri: https://www.markina-xemein.eus/es-ES/Servicios/Serviciosmunicipales/Urbanismo/pgou_memoria/Memoria.pdf
- Ayuntamiento de Markina-Xemein (s.f.). *Markina-Xemein patrimonio*. Online eskuragarri: <https://www.markina-xemein.eus/es-ES/Turismo/Patrimonio/Paginas/default.aspx>
- Ayuntamiento Markina-Xemein (2005). *PERCO de Markina-Xemein (2005). Fase 1 diagnóstico. Informe final*. Berreskuratua: <https://www.markina-xemein.eus/eu-ES/Udala/Ekintzaplana/merkataritza/02-perco-fase-i-diagnostico.pdf>
- Ayuntamiento Markina-Xemein (s.f.). *Gizarte Zerbitzuak Markina-Xemein gida*.
- Aztiker Soziologia Ikerguna (2020). *Markina-Xemeingo jatorri aniztasuna zenbakitan, 202*. : <https://www.aztiker.eus/es/proyectos/udalerriko-jatorri-aniztasuna-zenbakitan/>
- Bizkaia Biscaytik (2024). *Evolución de la edad de la población y de la población comunitaria y extranjera. Municipio de Markina-Xemein*. Bizkaia Biscaytik
- Bizkaiko foru aldundia (s.f.). *Markina Xemein, reseña histórica*. Online eskuragarri. Berreskuratua: https://www.bizkaia.eus/Home2/Archivos/DPT04/Temas/Patrimonio_Cultural/publicaciones/pdf/markina_1.pdf?hash=891e92ff0c9d4a612b7cc5b3829b4075&idioma=EU
- Eusko Jaurlaritz (s.f.). *Zerbitzu eta merkataritza gida*. Markina-Xemein Udala.
- EUSTAT (2023). *Markina-Xemein datos estadísticos*. Online eskuragarri. https://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/markina_xemein.html
- García-Hernández, E., eta Herrero-Goienetxea, L. (2023). *Bizkaibus, Mancomunidad de Lea Artibai y Mancomunidad de Lea Ibarra. Análisis de las líneas de autobús que dan servicio a municipios de las comarcas de Lea Artibai y de Lea Ibarra*. Leber.
- Markina-Xemeingo Udala (2023). *Markina-Xemeingo puntu arriskutsuen azterketa*. Markina-Xemeingo Udala.
- Markina-Xemeingo Udala (s.f.). *Markina-Xemein plano turistikoa*.
- Markina-Xemein Turismoa (s.f.). *Turismo aktiboa*. Markina-Xemein. Online eskuragarri: <https://markinaxemeinturismoa.eus/turismo-aktiboa/>